

HIZNET
2016-17 IKASTURTEA
SAKONTZEKO EGITASMOA

EUSKARAREN ERABILERA PLANAK
ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN:
LEHENA ETA GEROA

Egilea: Xabier Larrañaga
2017ko uztaila

EUSKARAREN ERABILERA PLANAK ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN: LEHENA ETA GEROA

AURKIBIDEA	Or.
0.- Sakontze egitasmoaren helburua	3
1.- Testuingurua. Administrazio publikoen hizkuntza-normalizazioa gogoratzen	4
1.1. EAEko Autonomia Estatutua	4
1.2. 10/1982 Euskararen Legea. Esparru desberdinetako normalizazioaren abiapuntua	5
1.3. Herri-administrazioaren hizkuntza-normalizazioa	6
1.4. EAEko Administrazio Orokorraren eta EAEko udal eta foru aldundien hizkuntza- normalizazioa	9
1.4.1. 250/1986 Dekretua	9
1.4.2. Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legea. 224/1989 Dekretua eta ondorengoak	15
1.4.3. 86/1997 Dekretua	19
2.- Hizkuntza-eskakizunak: eraikuntza erraldoi baten zutabeak	22
2.1. Itzulpen aroa	22
2.2. Herri-langileen gaitasunaren aroa	24
2.3. Erabilera indartzearen aroa	27
3.- Erabilera planen balantzea	29
3.1. Lorpenak eta lortu gabeak	29
3.2. Indarguneak eta hobetu beharrekoak	31

4.- Aurrera begirako gako batzuk	35
4.1 Erabiltzen ikasi. Planifikatu egin behar den prozesua	35
4.2 Erabilera planak egiteko gida-lerro orokorrak	38
4.2.1 Euskararen zehar-lerrotasuna (tranbertsalitatea)	38
4.2.2 Diseinua eta ebaluazioa lerratuta. Bikain	39
4.3.3 Kudeaketa aurreratua	40
4.2.4 Motibazioa, sustapena, inplikazioa	41
4.3. Argitu beharko diren zenbait kontzeptu	45
4.3.1 Adostasuna vs. hierarkia	46
4.3.2 Langileen eskubideak vs. betebeharrak	48
4.3.3 Jardun elebiduna vs.jardun elebakarra	49
4.3.4 Itzulpenaren papera	51
4.3.5 <i>Euskararen normalizazioa</i> deritzona zer den	53
5.- Amaierakoa	55
6.- Bibliografia	56

EUSKARAREN ERABILERA PLANAK ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN: LEHENA ETA GEROA

0.- Sakontze egitasmoaren helburua

Bi dira egitasmo honen baitan bildu nahi diren helburuak. Batetik, atzera begira jarrita, administrazio publikoen, bereziki, toki administrazioen eta EAEko Administrazio Orokorraren hizkuntza-normalizazioa garatzeko oinarri izan diren erabilera planen ibilbidearen azalpen laburra egitea . Bestetik, aurrera begira jarrita, etorkizunean erabilera planak egiterakoan kontu hartzea komeniko liratekeen alderdi garrantzitsu batzuk agertzea, planen eraginkortasuna areagotzen lagunduko dutelakoan.

Laster beteko dira hogeita hamar urte Eusko Funtzio Publikoaren 6/1989 Legea onartu eta indarrean sartu zela. Ez dira gutxi; urte kopuru esanguratsua da; belaunaldi bat adina. Egitasmo honetan ez da tarte hori guztia zehatz-mehatz aztertu nahi baina lege-iturri haren uretatik edan du harrezkero euskararen normalizazioak administrazioan, eta, ezinbestez, tarte horretan gertatutakoa kontuan hartu behar da euskararen erabilera planen inguruko gogoeta egiterakoan.

Administrazio publikoen eremua zabala eta anitza da, baita hizkuntzaren normalizazioari dagokionez ere. Baina, egitasmo honetan, aipamen puntual batzuk gorabehera, gaur egun indarrean dagoen 86/1997 Dekretuaren esparrura mugatuko gara. Ez dira, beraz, aztergai izango hezkuntza-sistemaren erabilera planak, ez eta osasun-sistemarenak, Ertzaintzarenak edota Justizia Administrazioarenak.

1.- Testuingurua. Administrazio publikoen hizkuntza-normalizazioa gogoratzen

Egin dezagun ibilbide labur bat administrazio publikoen hizkuntza-normalizazioan. Administrazioen hizkuntza-normalizazioa lege-araubideari dago lotuta. Ez dago administrazioen hizkuntza-normalizazioa ulertzerik legeen eta arauen eragina kontuan izan gabe. Aditu guztiek aldarrikatzen dutenez, hizkuntzen berreskurapenari eta normalizazioari dagokionez, ezinbestekoa da hizkuntza gutxituari babesa eta sostengua emango dioten lege-garapena ahalbidetzea. Hainbatetan nahikoa ez bada ere, hizkuntza gutxituaren biziberritzeko beti ezinbestekotzat jotzen da oinarri juridiko sendoa izatea.

1.1. EAEko Autonomia Estatutua

Esan liteke, bada, EAEko administrazio publikoari dagokionez behinik behin, euskararen normalizazioak lege garapen esanguratsua izan duela azken berrogei urteotan, Franco hil ondoren eta Autonomia Estatutua onartu zenez geroztik. Euskarak historia guztian izan duenik oparoena bai, noski. Baina, oparoa izateak ez du esan nahi, ezinbestez, nahikoa izan denik euskararen erabateko normalizazio erdiesteko. EAEko administrazio publiko guztietan euskararen erabilerak aurrerakada nabarmena egin badu ere, badira oraindik ere arautu beharra edota arau berrietuen premia duten esparruak (adb. osasun arloan, kontratazioaren arloan, arlo pribatuan, administrazio publikoaren zenbait arlotan, etab.). Hurrengo urteetarako erronka dago hor, bistan denez: dagoena egokitu eta hobetu, eta ez dagoena landu eta abiatu.

Egitasmo honi dagokionez, abiapuntua Autonomia Estatutuan jarriko dugu. Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onartu zen. Estatutuaren 6.1 artikuluan, euskarari hizkuntza ofizialaren izaera aitortzen zaio, gaztelaniarekin batera, eta herritarrei bi hizkuntzak ezagutzeko erabiltzeko eskubidea aitortzen die.

Horrez gain, 6. artikulua bi hizkuntza ofizialen inguruko oinarrizko arauak ematen ditu:

- 2.- Komunitate Autonomoko Erakunde amankomunek Euskal Herriko egoera sozio linguistikoaren ñabardurak kontutan izanik, bi hizkuntzen erabilpena bermatuko dute, berorien ofizialtasuna erregulatuz, eta berorien ezagutza segurtatzeko behar diren neurriak eta medioak erabaki eta baliaraziko dituzte.*
- 3.- Hizkuntza dela-eta, ez da inor gutxietsiko.*
- 4.- Euskarari dagozkionetan, Euskaltzaindia izango da erakunde aholku-emale.*
- 5.- Euskara beste euskal lurralde eta komunitate batzuetako ondarea ere izanik, erakunde akademiko eta kulturazkoek beroriekin izan ditzaketan harreman eta loturez kanpo, Euskal Herriko Komunitate Autonomoak eskatu ahalko dio espainol Gobernuari lurralde eta komunitate horiek kokaturik daudeneko Estatuarekin itunak eta komenioak egin ditzala -edo eta hala behar izanez gero Gorte Jeneralei horretarako eskabidea ager dezan, berauek hura onartzeko-, horretara euskara zaindu eta bultzatzea dadin.*

Beraz, gaur egun euskarak duen ofizialtasunaren sorburua, Estatutuaren 6. artikulua aipamen horren baitan bilatu behar dugu¹.

Autonomia Estatutuak bi hizkuntzen ofizialtasuna ezarri zuen, beraz. Gertaera funtsezkoa eta oinarri-oinarrizkoa zen hori euskararen normalizaziorako (edo, garai hartan esaten zen bezala, berreskurapenerako) eta, ondorengo urteetan, are Euskararen Legea onartu ostean, hizkuntzen inguruko kontzeptu eta “hizkera” jakin batzuen hedatzea ekarri zuen: ko-ofizialtasuna, elebitasuna... edo, gureari gagozkiola, administrazio elebiduna, langile elebiduna, idazki elebidunak, testu elebidunak, testuak zutabetan... eta antzeko beste batzuk.

Horietako batzuk sarritan eta jendea askoren ahotan erabili izan badira ere, esan behar da ez direla beti ikusmolde berdinez ulertuak eta aipatuak izan. Eta, urteak igaro diren arren, gaur egun ere jarraitzen dugu, egitasmo honen amaieran ikusiko dugun bezala, zenbait kontzepturen definizio bateraturik izan gabe.

1.2 Euskararen Legea. Esparru desberdinetako normalizazioaren abiapuntua

Autonomia Estatutuaren gurpiletik, hiru urte geroago, 10/1982 Legea, Euskararen Erabilera Arauzkotzekoa onartu zuen Eusko Legebiltzarrak².

10/1982 Legeak, oinarrizkoa izanik, gizarte-esparru guztietako normalizazioaren araubidea ezarri zuen. Laburbilduta:

- Euskara EAEko berezko hizkuntza propio aitortzen du eta euskara eta gaztelania hizkuntza ofizial gisa ezarri zituen.
- Hizkuntza-arrazoiengatik bereizkeria galarazi zuen.
- Hizkuntzaren alorrean herritarrek dituzten eskubideak eta herri-aginteek dituzten betebeharrak zehaztu zituen.
- Euskararen erabilera arautu zuen:

¹ Alderdi juridikotik zehatzak izatearren, gehitu behar da Espainiako Konstituzioaren 3. artikulua babespean egiten dela ofizialtasunaren aitortza:

3. artikulua

- 1. Gaztelania da Espainiako estatuaren hizkuntza ofiziala. Espainiar guztiek dute gaztelania jakiteko eginbeharra eta erabiltzeko eskubidea.*
- 2. Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak izango dira haiei dagozkien autonomia-erkidegoetan, beraietako estatutuekin bat etorritik.*
- 3. Espainiako hizkuntza-moten aberastasuna kultur ondarea da, eta ondare horrek begirune eta babes berezia izango du.)*

² Gerora, 2012an, Legearen 30. urteurrenaren haritik Eusko Jaurlaritzako Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak egindako itzulpen eguneratuaren arabera, honela berrizendatu zen: *10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa.*

EUSKARAREN ERABILERA PLANAK ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN: LEHENA ETA GEROA

- Herri-administrazioa: erregistro publikoak; Justizia Administrazioerekiko harremanak; bide-seinaleak eta mezuak; herri-agintek erabili beharreko inprimaki eta idazki-eredu ofizialak; herri-administrazioari atxikitako langileriaren euskalduntzea.
 - Irakaskuntza: ikasleen eskubideak; hizkuntza-ereduak; ikasketa-planak, irakasleen prestakuntza; salbuespenak.
 - Hedabideak: informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea; erabilera sustatzeko neurrien ardurak.
 - Gizarte erabilera: helduen euskalduntzea; erabilera bultzatzeko ardurak.
- Euskararen batasunaren eta normalizazioaren ardura Jaurlaritzari egotzi zion.
 - EAEko lurraldetik kanpo euskararekin lotutako jardunaren ardura Jaurlaritzari egotzi zion.

1.3 Herri-administrazioaren hizkuntza-normalizazioa

Esan bezala, oinarrizkoa izanik, 10/82 Legeak euskarari aurreikusten zitzaizkion eragin esparru desberdinetako arau-zimendua ezarri zuen. Herri-administrazioei dagokienez, Legearen 6. artikulutik 14.era bitartekoak dira kontuan hartu beharrekoak, nagusiki. Halere, egitasmo honen helburuetarako, bederatzi artikuluko horietatik hirutan jarriko dut begirada, herri-administrazioetako erabilera planetan eragin apartekoa dutela irizten baitiot.

Alde batetik, 6. eta 14. artikulukoak aipatu behar dira. 6. artikulukoak ezartzen du neurriak hartu behar direla eta baliabideak ebartziko direla herritar guztiek administrazioarekin euskara nahiz gaztelania erabiltzeko duten eskubidea arian-arian bermatu dadin. Eta 14. artikulukoak hiru betebeharrak ezartzen ditu:

- a) ezartzen du, herritarren eskubidea bermatzeko, herri-agintariek neurriak hartuko dituztela EAEko administrazio publikoan diharduten langileak arian-arian euskalduntzeko.
- b) ezartzen du herri-agintariek erabakiko dutela zein lanposturako izango den beharrezko hizkuntza biak jakitea.
- c) ezartzen du, halaber, gainerako lanpostuetara sartzeko hautaketa-probetan, besteak beste hizkuntza-maila hartuko dela kontuan, horren haztaketa lanbide-maila bakoitzerako egingo delarik.

Gaur egunetik begiratuta, bi artikuluetan ezarritakoa erraz errekonozitu ahal dugu, adibidez, hain ezagunak zaizkigun hizkuntza-eskakizunen sistema desberdinetan. Aldiz, Legea pentsatu eta idatzi zeneko garaian kokatuz gero, aitortu behar da legegileak antolamendu konplexu eta oso bat aurreikusteko gaitasuna izan zuela.

Beste aldetik, 8. artikuluari ere erreparatu nahi nioke. Gogoeta interesgarri bat egiteko aukera ematen dute 10/82 Legearen 8.1 eta 8.2 artikuluek. Aurrerako ikusiko dugun moduan, badu loturarik sakontze-egitasmo honen hariarekin

8. artikulua

- 1. Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan kokatutako herri-aginteez emandako arau-xedapen zein ebazpen ofizial orok bi hizkuntzetan idatzita egon beharko du zabalkunde ofiziala egiteko.*
- 2. Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan kokatutako herri-aginteez esku hartzen duten egintza guztiak eta baita administrazioaren jakinarazpen eta adierazpenak ere bi hizkuntzetan idatzita egon beharko dute, salbu eta interesdun partikularrek Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako bat berariaz erabiltzea aukeratzen badute.*
- 3. Aurrekoan agindukakoa gora behera, herri-aginteez euskara bakarrik erabili ahal izango dute toki-administrazioaren esparruan baldin eta, udalerriaren ezaugarri soziolinguistikoak direla-eta, herritarren eskubideak kaltetzen ez badira. (jakina denez, Konstituzio Auzitegiak indargabetu egin zuen 8.3 artikulua hau).*

Urte askotan, eta gaur egun ere bai, bi artikuluetan ezartzen den “...bi hizkuntzetan idatzita egon beharko du...” edota “...bi hizkuntzetan idatzita egon beharko dute...” esaldiek gidatu dute administrazio publiko desberdinen hizkuntzarekiko jarduna. Adibidez, esaldi horien karguz, sarritan ondorioztatu izan da administrazio elebiduna dela bere jardun oro bi hizkuntzetan egiten duena. Eta hortik sortu dira, nire uste apalean, administrazioan euskarak urteetan zamatu izan dituen aje astunak.

Urteetan, interpretazio horrek ekarri du, adibidez, administrazioan gaztelaniaz egiten den guztia euskaraz ere egin behar dela uste izatea, hori delakoan administrazio elebiduna izatea. Gaur egun ere, administrazioako agintari eta langile askok, horrela ulertzen du administrazio elebiduna izatea.

Horregatik, esango nuke, interpretazio hori ez dela izan, luzera begira, uste bezain mesedegarria euskararen normalizazioarentzako. Bi arrazoi nabarmenduko nituzke:

- interpretazio horrek, batetik, oso urruneko helburua ezartzen du, ia utopikoa. Bi hizkuntzen arteko desoreka itzela kontuan hartuta ia ezinezkoa da, administrazio gehienetan, euskararen hainbesteko garapen maila lortzea.
- bestetik, elebitasuna era horretara ulertzeak kostu handien susmoa eta inguruabarra sortzen du hasieratik bertatik, bai diru-baliabidez, bai denboraz; eta horrek ere zerbait lortezina eta fikziozkoa den kutsua ematen dio administrazioaren normalizazioari, sinesgarritasunik gabekoa.

Jakina, beste arrazoi batzuk ere ez dira ahaztu behar, baina, susmoa dut elebitasuna interpretatzeko era “erraldoi” horrek eragin handia izan duela jende askorengan –baita langile euskaldun askorengan eta aldeko jarrera duten beste askorengan ere, publikoki aitortu ez arren- eta bide eman duela pentsarazteko administrazioaren hizkuntz normalizazioa ez dela aukera erreal bat, ez dela lorgarria, ez dela bideragarria.

EUSKARAREN ERABILERA PLANAK ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN: LEHENA ETA GEROA

Era berean, esango nuke hausnarketa horrek antzera balio duela administrazioz kanpoko beste gizarte-esparruetarako ere.

Azken batean, susmoa da ez dugula jakin definitzen herri elebiduna izatea zer den zehazki, zertan gauzatzen den konkretuki. Definizio orokorrak asko eman dira, baina beti lausoak eta zabalegiak (*euskararen erabileran sakondu, euskara sustatu, euskara gero eta gehiago erabili, elebitasunean aurrera egin, gizarte elebiduna lortu, elkarbizitzan oinarritutako gizartea...* eta era horretako beste asko) baina ez dugu inoiz zehaztu zer esan nahi duen eguneroko errealitatean elebidun izateak, ez maila pertsonalean, ez talde mailan, eta horren faltan, maximoetako interpretazio kaltegarriak egin izan dira, mesedegarri zirelakoan.

Ereduaren definizio zehatz eta baliagarriak ez ematearen ondorioz, nago euskal herritarrek ez dakitela zer den herri elebiduna izatea, zertan eragiten dien, zertarako balio dien, noiz erabili dezaketen bata eta noiz bestea edo biak berdin erabili ditzaketen, eta abar.

Administrazioaren alorrera etorruta, beste hainbeste gertatzen da. Neurri batean, eskoletako irakasleen kasuan bakarrik ezarri dira garbi samar elebidun izatearen ondorioak: eskolak euskaraz ematea. Beste administrazio-esparruetan, berriz, oraindik ez da finkatu, zehatz, administrazio elebiduna izatea zer den. Eta, ondorioz, era guztietako interpretazioak daude izaera elebidunaren inguruan. Zer da administrazio elebiduna izatea? langileak euskaraz jakitea? herritarrei arreta euskaraz egitea eta euskarazko erantzuna ematea? herritarrentzako idazkiak ele bietan izatea? administrazioaren jarduna (osoa?) ele bietan izatea? Definizio bateraturik ez daukagu, eta, horrenbestez, jo muga bateraturik ere ez; beraz, helburu sakabanatuak, norabide desberdinetakoak, eta, gehienetan, zehaztasun gutxikoak.

Gogoeta honen hasieran adierazi dudana bezala, susmoa dut horrek guzti horrek uste baino atzerakarga handiagoa eragin duela, euskararen normalizazioan orokorrean, eta, propio, administrazioaren normalizazioan.

Edozelan ere, errua ezin zaio egotzi 10/82 Legearen idazkerari, baizik eta legearen idazkeratik etorkizun bateratua eta lorgarria irudikatzeko gaitasun nahikorik ez izateari. Ez maila politikoan (alderdi politikoak, arloko agintariak...), ez maila teknikoan (normalizazio teknikariak, adituak, ikerlariak...).

Jakina, ikuspegi ideologikoak gurutzatzen dira honetan guztian, hizkuntza baten nagusitasuna aldarrikatzen dutenengandik hasi eta beste hizkuntzaren nagusitasuna eskatzen dutenengan amaituta. Eta, ez da ahaztu behar, ezta ere, Konstituzio Auzitegiak errotik baretu zituela interpretazio ausartagoetan sartzeko gogoak.

1.4 EAEko Administrazio Orokorraren eta EAEko udal eta foru aldundien hizkuntza-normalizazioa

Interpretazioak interpretazio, Euskararen Legeak ezarri zuen marko orokorra garatuz, lege ekimen berriak eraman ziren aurrera herri-administrazioaren hizkuntza-normalizazioan sakontzeko asmoz. Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legea da hurrengo mugarria. Lege hori gabe, ezin da ulertu euskararen normalizazioa EAEko herri-administrazioan.

Alabaina, 6/89 Legearen funtsa azaldu aurretik, aipamen berezia merezi du 1982ko Euskararen Legearen eta 1989ko Euskal Funtzio Publikoaren Legearen tartean onartu zen 250/1986 Dekretuari.

1.4.1 250/1986 Dekretua

250/1986 Dekretua, azaroaren 25ekoak, EAeko Herri-Administrazioetan euskararen erabilera eta normalizazioari buruzkoak, hurrengo hogeita hamar urteotan eta gaur arte administrazioetako hizkuntza-plangintzaren zehaztasunak ezarri zituen. Arau horretan ezarri zen, lehen aldiz, hizkuntza-eskakizunen kontzeptua eta, horrekin batera, hizkuntza-eskakizunak zehaztu eta ezartzeko eta izendatzeko irizpideak ere finkatu zituen.

250/1986 Dekretuaren indarraldia ez zen hiru urtera heldu, harik eta euskal funtzio publiko osoa erregulatuko zuen arau orokorra, Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legea, onartu zen arte. Nire irudirako, 250/1986 Dekretua ahaztuta geratu izan da sarritan, gerora etorri ziren aipatutako 6/1989 Legeak eta 224/1989 Dekretuak ezkutatuta. Baina komenigarri iruditzen zait bere garrantzia azpimarratzea, lehen formulazio sistematikoa ekarri baitzuen hizkuntzaren planifikaziora, ordura arte inoiz egin ez zena.

Baina, horrez gain, 250/1986 Dekretuaren eragina funtsezkoa izan zen ikuspegi juridikotik ere, konponbide juridikoa eman baitzuen administrazioetan gero eta ugariagoak ziren langile berrien aukeraketa-prozesuen aurkako errekurtsoei.

Autonomia Estatutuaren eta demokraziaren lehen hauteskundeen ondorioz, EAeko herri-administrazioak eratzen eta berregituratzen ari ziren laurogeiko hamarkadaren hasieratik. Horrek langile berrien premia ekarri zuen eta, horrekin bat, euskara zekiten langile berrien premia. Toki administrazioetan bereziki, ugaritzen hasi ziren euskararen ezagutza ezartzen zuten hautaketa-prozesuak, baina, ia neurri berean, ugaritzen joan ziren baita ere, euskararen ezagutza eskatzearen zilegitasuna zalantzan jartzen zuten hautaketa-prozesu horien aurkako errekurtsoak. Egoera larria izatera iritsi zen, errekurtsoek erabat geldiarazten zutelako udal berrien egituraketa.

Bada, egoera haren aurrean, 250/1986 Dekretuak amaiera jarri zion hautaketa-prozesuen aurkako errekurtsoen bideari.

Hona hemen aipamen interesgarri bat, egoera korapilatsu haren inguruan eman ziren buruhauste juridikoen erakusgarri:

Josu Iñaki Erkoreka Gervasio (El Euskera en la Administración Pública Vasca; origen, situación actual y perspectivas. RIEV, Revista Internacional de Estudios Vascos, 43.2 zkia. 1998).

Ahora bien, ¿Cómo puede reorganizarse una Administración Pública inicialmente monolingüe con el fin de dar satisfacción a los derechos lingüísticos que el régimen de cooficialidad resultante del EAPV reconoce a los ciudadanos? Y, concretamente, ¿cuáles son las medidas adoptadas por las administraciones públicas vascas con esa finalidad?

Aunque, visto desde la perspectiva que suministra el paso del tiempo, pueda, hoy en día, resultar paradójico, una de las primeras cuestiones que se plantearon a la hora de considerar el abanico de medidas de carácter organizativo o estructural que las administraciones públicas vascas habían de adoptar de cara a garantizar la satisfacción de los derechos lingüísticos de los ciudadanos, guardaba relación con la posibilidad jurídica de exigir el conocimiento del euskera a –todos o algunos, según cada caso– los empleados públicos de una determinada organización administrativa. En esencia, como veremos, los posicionamientos sobre esta cuestión se polarizaron en torno a dos postulados: El de quienes defendían la legitimidad jurídica de tal exigencia, siempre que se estableciese con las modulaciones pertinentes y el de que aquéllos que, por el contrario, consideraban discriminatorio a radice todo requisito de acceso a la función pública o de provisión de un empleo público que plantease la exigencia de conocer las dos lenguas oficiales de la CAPV y, por tanto, se mostraban más partidarios de garantizar la capacitación lingüística de las administraciones públicas a través de medidas de carácter organizativo que no supusieran la traslación a los funcionarios del deber de conocer las dos lenguas oficiales de la CAPV; deber que –sostenían–, incumbía, en exclusiva, a las organizaciones administrativas sin incidir en los empleados públicos de las mismas...

...Empero, esta opción del legislador vasco, no gozó de pacífica aceptación, como lo prueba el hecho de que el precepto citado fuera impugnado ante el Tribunal Constitucional e inexplicablemente soslayado en la práctica judicial contencioso-administrativa hasta después de que el alto tribunal dictara la Sentencia que puso fin al recurso de inconstitucionalidad interpuesto contra el mismo. Con todo, el art. 14 LNE no fue un precepto aislado y único. Aun con una literalidad poco diáfana, la propia legislación estatal sobre función pública vino, también, a dar por buena la posibilidad de exigir a los empleados públicos el conocimiento de las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma, al establecer que, en el ámbito de sus respectivas competencias, las administraciones públicas debían –“deberán” es la concreta expresión que utiliza el art. 19-1 in fine de la Ley 30/1984, de 2 de agosto– “...prever la selección de funcionarios debidamente capacitados para cubrir los puestos de trabajo en las comunidades autónomas que gocen de dos lenguas oficiales...”.

...Pero la jurisprudencia, ha ofrecido una mayor resistencia a la hora de reconocer la legalidad de las convocatorias de acceso y provisión en las que se exige a los candidatos el conocimiento de alguna lengua cooficial distinta al castellano.

Pese a todo, el alto tribunal (Tribunal Constitucional) no sólo no ha abandonado la línea abierta a partir de 1986 sino que ha profundizado aún más en la misma, llegando a postular, en su STC 46/1991, de 28 de febrero que, en el caso catalán y a la luz de la realidad sociolingüística de aquella Comunidad Autónoma, la pauta del bilingüismo objetivo del servicio que, con fortuna o sin ella, algunos pronunciamientos suyos predicán como principio, no solamente no excluye la posibilidad de que se exija la condición bilingüe a determinado personal de la plantilla, sino que puede resultar compatible incluso con la exigencia del conocimiento del catalán a todos los empleados públicos de la Administración autonómica...

...Sin embargo, por otra parte, el Tribunal Supremo se ha mostrado más renuente a admitir la condición bilingüe como requisito sine qua non para el acceso a determinados puestos de la Administración Pública. En una primera fase, que arranca con la Sentencia de 28 de enero de 1984 y comienza a declinar a partir del momento en el que el Tribunal Constitucional dicta la Sentencia 82/1986, de 26 de junio, ya citada, el Tribunal Supremo se mantuvo firme en una línea doctrinal muy restrictiva que reputaba discriminatoria no solamente la exigencia del conocimiento del euskera como requisito para acceder a un puesto en la Administración Pública, sino incluso su valoración como mérito a estos mismos efectos. Esta jurisprudencia, que alcanzó extremos ridículos, al postular, desde una falaz simetría que no podía valorarse como mérito el conocimiento de la lengua vasca si al mismo tiempo no se meritaba también el conocimiento del castellano, fue duramente criticada por la doctrina⁴, pero no cambió de rumbo hasta que el Tribunal Constitucional sentara que exigir el conocimiento de las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma para acceder a determinados puestos de la Administración, constituye algo incuestionablemente legítimo desde la perspectiva constitucional.

Es preciso hacer notar, sin embargo que, no siempre ha sido objeto de pacífica y general aceptación este punto de vista que el Tribunal Constitucional, primero, y a su impulso, el Tribunal Supremo después, han hecho finalmente suyo. No han faltado así, quienes se han querido apoyar en los pronunciamientos judiciales que atribuyen a la Administración "...en su conjunto (y) no individualmente a cada uno de sus funcionarios..." el deber de responder a la condición bilingüe, para demorar ad calendas graecas la euskaldunización de la función pública o, más sutilmente, para considerar cumplidamente satisfecho el deber de capacitación lingüística que imponen a la Administración Pública el régimen de cooficialidad instaurado en el EAPV, mediante la implantación de sistemas claramente disuasorios para el uso por los ciudadanos de la lengua vasca, tales como el establecimiento de un servicio de traducción tan claramente insuficiente que provoque retrasos sistemáticos en la tramitación de los expedientes iniciados en euskera por relación a los planteados en lengua castellana.

Afortunadamente, este tipo de posicionamientos se encuentran hoy prácticamente superados, aunque no faltan quienes se adhieren tenazmente a su defensa en un

postrero y cerril intento por negar la evidencia puesta de manifiesto por el Tribunal Constitucional de que, el régimen de cooficialidad lingüística "...es resultado de una decisión constitucional...", que no puede quedar neutralizada por el hecho de que su efectiva puesta en práctica ocasione "...dificultades en el seno de la Administración...". Una de las más recientes manifestaciones de este empeño lo encontramos en la intervención que el parlamentario de Unidad Alavesa Sr. Moraza, defendió en la sesión plenaria del Parlamento Vasco celebrada el 15 de noviembre de 1996...

Gorago esan dudak bezala, urteen joanean, sarritan ahaztuxea geratu izan da 250/1986 Dekretua eta bere garrantzia, eta ez dira asko bibliografiatan berari buruz aurki daitezkeen analisiak eta aipamenak. Horietako bi errekueratuko ditut hemen, baliagarriak direlakoan. Lehena, Jokin Azkue Arrastoak BAT aldizkarian idatzitakoa I. Plangintzaldiaren Ebaluazioari buruzko artikulutik aterata; bigarrena, aipatu berri dudak Josu Iñaki Erkoreka Gervasiok RIEVen emandakoa:

Jokin Azkue Arrastoa (Euskararen Erabileraren Normalkuntza Prozesuaren Ebaluazioa Euskal Herri Administrazioetan. BAT Aldizkaria, 17. zkia. 1996ko abendua):

10/1982 Legea Konstituzio Auzitegiaren aurrean errekurritu zuten baina egoera Konstituzio Auzitegiak ekainaren 26ko 82/1986 Epaia eman zuenean aldatu zen, Epaia Euskal Autonomi Elkartetik defendatutako ia tesi guztien eta Legebiltzarrak onartutako Legean jasotzen diren xedapenetan islatzen zirenen aldekoa izan baitzen.

1982-1986 urteen artean Herri Administrazioek jasan behar izan zuten egoerak 10/1982 Legea garatzea eskatzen zuen. Horretara etorri zen Euskal Autonomi Elkarteko Herri Administrazioetan euskararen erabilera eta normalizazioari buruzko azaroaren 25eko 250/1986 Dekretua. Hau Herri Administrazioek bete beharrekoak zehazten hasi zen eta hizkuntz eskakizunen sorrera ekarri zuen.

Dekretu hau martxan jarri ahal izateko Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia Herri Administrazioetako lanpostuen azterketa egiten hasi zen 1987an, helburua lanpostuen hizkuntz eskakizunak eta administrazio bakoitzaren hizkuntz egoera zehaztea zen. Era berean, lantalde bat osatu zen Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako Sailaren eta Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiaren artean eta Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Herri Administrazioetan euskararen erabilera normaltzeko plangintzarako oinarriak izeneko dokumentua egin zen.

1989ko maiatzaren 17an Eusko Legebiltzarreko Iraskundeak eta Herrizaingo Sailak Erabaki bat onartu zuen, aipatutako idatzia berresten zuena eta Herri

Administrazioetan euskararen erabilerearen normalkuntza-planak jarraitu beharreko oinarriak barne hartzen zituena.

1989ko uztailaren 6an Funtzio Publikoaren 6/1989 Legea onartu zen. Lege honek 10/1982 Legean, Euskararen Erabilpena Arauzkotzekoan, hautaketa-prozesuetan eta lanpostuak betetzekoetan euskara meritu gisa hartzeari buruz egiten ziren aurrikuspenak zehazten ditu, baita Herri Administrazioek euskara lanpostuari lotutako betekizun gisa har dezaten jarraitu beharreko bideak eta bete beharreko baldintzak ere.

Josu Iñaki Erkoreka Gervasio (El Euskera en la Administración Pública Vasca; origen, situación actual y perspectivas. RIEV, Revista Internacional de Estudios Vascos, 43.2 zk. 1998):

Una vez admitida la legitimidad constitucional de exigir el conocimiento del euskera para la provisión de determinados puestos de trabajo, resulta forzoso fijar una serie de pautas que permitan determinar en qué supuestos y dentro de qué límites tal exigencia se mantiene respetuosa con el derecho fundamental de acceder en condiciones de igualdad a las funciones y cargos administrativos (art. 23-2 CE). Ha de recordarse a este respecto que, según la doctrina sentada por el Tribunal Constitucional en la repetidamente citada Sentencia 82/1986, de 26 de junio, la inclusión del conocimiento de las dos lenguas oficiales entre los requisitos de acceso a ciertos puestos de la Administración sólo resulta lícita si se lleva a cabo "...dentro del necesario respeto a lo dispuesto en los artículos 14 y 23 de la CE y sin que en la aplicación del precepto legal en cuestión se produzca discriminación..."

...Estas consideraciones obligan a que, a la hora de determinar los concretos puestos de trabajo para cuya cobertura resulte exigible la condición bilingüe, haya de tomarse en consideración tanto la realidad sociolingüística del ámbito sobre el que opera cada Administración Pública, como la naturaleza y configuración funcional de cada uno de los puestos de trabajo. Pues parece claro que, el porcentaje de empleados públicos necesariamente bilingüe no puede ser el mismo en una Administración que actúa en una zona eminentemente vascófona que en otra en cuyo ámbito territorial de actuación, el conocimiento y el uso social del euskera sea prácticamente nulo. Del mismo modo que, la urgencia de garantizar la condición bilingüe de los empleados públicos no puede ser la misma en una unidad administrativa que opera fundamentalmente ad intra que en otra cuya función predominante sea de carácter relacional...

*La CAPV ha sido pionera en la búsqueda de fórmulas de planificación que permitan abordar de un modo general, objetivo y razonable, el establecimiento de requisitos lingüísticos para el acceso a los empleos públicos. Ya en las postrimerías de 1986 el Gobierno Vasco dictó el **Decreto 250/1986**, de 25 de noviembre, en el que apostaba en favor de un diseño in abstracto, necesariamente previo y objetivo de todos los puestos de trabajo de las administraciones públicas*

cuya cobertura requiriese el conocimiento de las dos lenguas oficiales de la CAPV. Empero, la inserción definitiva en el sistema de función pública de los requisitos lingüísticos a exigir a los empleados públicos, no se produjo hasta la aprobación de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca (LFPV) y su normativa de desarrollo. Este anclaje de las medidas encaminadas a la euskaldunización administrativa con el sistema general de ordenación de la función pública perseguía, básicamente, la plena normalización de las exigencias de tipo lingüístico referibles a los empleos públicos, mediante su inclusión entre los requisitos de todo orden que han de observar los aspirantes a la condición de servidores públicos. El Plan nace, así, con la clara vocación de superar la improvisación y el casuismo en la definición de las competencias lingüísticas que han de reunir los empleados públicos, estableciendo procedimientos de asignación regidos por el rigor, la objetividad y la proporcionalidad.

Punta-puntakoa izan zen, bada, 250/1986 Dekretua, eta ondo funtsezkoa haren eragina. Bertan ezarri ziren harrezkeroko hamarkadetan herri-administrazioen normalizazioan oinarri izan diren kontzeptuak eta tresnak: egoera soziolinguistikoaren arabera egituratzea, helburu mailakatuak ezartzea, hizkuntza-eskakizunak, derrigortasuna eta meritua bereiztea, etab.

Halaber, 250/1986 Dekretua onartu baino hilabete batzuk lehenago, Konstituzio Auzitegiak Euskararen Legearen aurka ezarrikerik zegoen errekurtsioa ebatzi zuen ekainaren 26ko 82/1986 epaiaren bidez, eta horren guztiaren ondotik, mugatuta geratu zen administrazioek deitutako hautaprobaren aurkako errekurtsioen bidea. Herri-administrazioek zilegi zuten, beraz, beren langileak hautatzeko prozesuetan euskararen ezagupena eskatzea.

Azken urratsa behar zen, halere, egitura guztia abiatzeko, oraindik ere arautu gabe baitzegoen euskal herri-administrazioen funtzio publikoaren eredia, bere izaera eta antolamendua. Hori hiru urte geroago etorri zen, uztailearen 6ko 6/1989 Euskal Funtzio Publikoaren Legearen eskutik. Baina, bitartean, 250/86 Dekretuak irekitako bideari ekin zioten herri-administrazioek, bereziki EAEko udalek, foru aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak, eta gaur arte dirau orduko funtsak.

1.4.2 Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legea. 224/1989 Dekretua eta ondorengoak.

Esan bezala, 1989an euskal funtzio publiko osoaren eredia zedarritzen zuen Legea onartu zen: uztailearen 6ko 6/1989 Legea, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa. Legeak lanpostu-zerrendak jarri zituen funtzio publikoaren sistemaren muintzat, eta, horren ondorioz, ordura arte ez bezala, posible egin zuen hizkuntza-eskakizunen sistema praktikan aplikatu ahal izatea.

Hizkuntzaren ikuspegitik, 6/1989 Legeak ekarpen garrantzitsua egin zuen, lege mailara eramanez baitzituen euskararen normalizaziorako ordurako emandako urratsak. Idazpuru oso bat (V Idazpuru) eskaini zion hizkuntzaren normalizazioari eta bertan biltzen zuen, neurri handi batean, bai 10/1982 Euskaren Legeak bai 250/1986 Dekretuak aurreikusitakoak.

Laburtuta:

97. artikulua:

- Euskara eta gaztelania euskal administrazio publikoetako hizkuntza ofizialak dira.
- Administrazioetako lanpostuetako bakoitzak bere hizkuntza-eskakizuna izango du.
- Hizkuntza-eskakizuna aginduzkoa ez den bitartean, merezimendua izango da. Aginduzkoa izaten den egunetik aurrera ezinbestekoa izango da hizkuntza-eskakizuna betetzea.
- Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak (gaur egun, HPS) proposatuko ditu lanpostuetako hizkuntza-eskakizunak. Erakunde bakoitzak erabakiko ditu bere menpeko lanpostuen hizkuntza-eskakizunak, aldeztatik HPSren txostena jasoko duelarik.
- Bai hizkuntza-eskakizuna, bai, hala dagokionean, hori indarrean jartzeko egu) nahitaez azalduko dira lanpostu-zerrendetan.
- Hizkuntza-eskakizunak ezartzean berdintasunez eta heintasunez jokatu da titulazio, kidego, eskala, maila edo taldeetan bereizkuntzarik egin gabe.
- Administrazio publikoak saiaturiko dira euren menpeko langileak behar bezalako hizkuntza-gaitasuna lor dezaten.

98. artikulua:

- Administrazio publikoen zerbitzura sartzeko deialdien edukia bete beharreko lanpostuen hizkuntza-eskakizunei egokituko zaie.
- Hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa duen lanpostu baterako deialdia egiten bada, lanpostura sartzeko bete beharreko baldintza izango da. Baldintza hori eskatu ahal izango da hautaketa-saiotetan bertan egiaztatuz, edo praktika-aldiak dirauen bitartean.
- Deialdien arabera, hizkuntza-eskakizuna ez bada nahitaez bete beharrekoa, euskara jakitea merezimendutzat joko da (merezimenduetan guztira lortu daitezkeen puntuen %5a eta %20 bitartekoa).

99. artikulua:

- Hizkuntza-eskakizunak bete direla egiaztatzeko, IVAPi aitortzen zaio euskararen jakintza haztatzekeo proben edukia eta nolakoa erabakitzeko ahalmena.
- Hautaketa-proben epaimahaietan IVAPeko ordezkari bat egongo da hizkuntza-eskakizunak egiaztatzekeo saioetan.

EUSKARAREN ERABILERA PLANAK ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN: LEHENA ETA GEROA

Euskal Funtzio Publikoaren Legea onarturik, bada, esan daiteke bidea erabat garbituta geratu zela administrazio publikoetan euskararen normalizazioari zilegitasun osoz ekin ahal izateko.

Esan behar da, jakina, bien bitartean erakundeak ez zirela normalizazio lanetan geldirik egon. Bereziki udaletan, asko izan ziren nolabaiteko arauak onartu izan zituztenak, ordenantza bidez edo bestelako arauen bidez, non eta hizkuntzarekin (euskararekin) zerikusia zuten hainbat alderdi arautzen zituzten. Alabaina, sarritan, errekurrituak edo salatuak izaten ziren arau horiek eta, ondorioz, gehienetan ibilbide motzekoak suertatu ziren. Araubide berriak, ordea, atea erabat ireki zuen normalizazioari zilegitasun osoz ekiteko, ordura arte jasan behar izan ziren errekurtsioen mehatxuak atzera utziz neurri handi batean.

Euskal Funtzio Publikoaren ondotik normalizazioak egingo zuen bidea, beraz, formalizatuago eta bideratuago egongo zen. Legea onartu eta hilabete gutxiren buruan, herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko plangintza arautzen zuen urriaren 17ko 224/1989 Dekretua onartu zen, Funtzio Publikoaren Legeak eta 250/1986 Dekretuak ezarritakoak aintzat hartuz eta plangintzak abiatzeko zehaztapenak finkatuz.

224/1989 Dekretuaren izenburuan “herri-administrazioen plangintza” aipatzen bada ere, esan behar da Dekretuak administrazio jakin batzuen esparrua arautzen duela bakarrik³, zehazki:

- udal administrazioa
- foru administrazioa
- Administrazio orokorra

Edozelan ere, hizkuntza-eskakizunak gauzatzen eta erakundeetan ezartzen hasteko abiapuntua ematen du, eta ordura arteko araubideak ezarritako kontzeptuak konkrezio gehiagoz definitzen eta ezartzen dira une horretan. Nabarmenenak aipatzearren:

- Lau hizkuntza-eskakizun ezartzen dira. Bakoitzaren gaitasun-maila zehazten da eta baita bakoitzaren deskribapena ere.
- Derrigortasun indizea ezartzen da (erakundearen eragin esparruko euskaldunak (ia-euskaldunak/2)).
- Hizkuntza-eskakizunak ezartzeko prozedura zehatza finkatzen da.
- Hautaketa-probetan euskara jakiteari emango zaion merezimenduen ehunekoak zehazten dira:
 - 1. eta 2. hizkuntza-eskakizunetan: %5etik %10era.
 - 3. eta 4. Hizkuntza-eskakizunetan: %10etik %20ra⁴.

³ Esan behar da 250/1986 Dekretuak ere eragin esparru berbera zuela oraindik. 224/1989 Dekretuaren ondotik garatuko dira beste esparruak.

⁴ %10eko portzentajea bik moltzoetan errepikatzen zelarik, gerora, 86/1997 Dekretuak, honela zuzendu zuen kopurua:

- 3. eta 4. hizkuntza eskakizunetan: %11tik %20ra.

EUSKARAREN ERABILERA PLANAK ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN: LEHENA ETA GEROA

- Lanpostuko hizkuntza-eskakizuna derrigorrez betetzetik salbuesteko araubidea ezartzen da.
- Hezkuntza arloaren, osasun arloaren eta Ertzaintzaren normalizazio prozesuak arautzea aurreikusten da.

Egitasmo honen harirako, garrantzitsua da aipatzea lege garapen horretan guztian oraindik ez dela ezarri, modu esplizituan behintzat, *erabilera planak* egiteko beharrik. HPSk egin beharreko ebaluazio txostenean ere, normalizazio “*bideaz*” hitz egiten da oraindik:

10. atala.- 1- Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak gutxienez bi urterik behin bidaliko dio txostena Eusko Jaurlaritzaren Batzordeari, hark herri-administrazio bakoitzari hizkuntza-normalkuntza bidean ezarri zaizkion helburuen betetze-mailaren ebaluaketa egin dezan.

Planen kontzeptura hurbiltzen den aipamen bakarra, 3. Erabaki Gehigarrian aurkitu daiteke, non eta ezartzen den IVAPek aldiari-aldiari diru-laguntza deialdiak egingo dituela herri-administrazioei dagozkien eginkizunak gauzatzen laguntzeko, eta eginkizun horien artean sartu ahal izango dira hizkuntza-eskakizunak eta derrigortasun-datak lanpostuei izendatzeko azterlanak, administrazio-atal nahiz kate elebidunak finkatzeko azterlanak, **hizkuntza-normalkuntzarako egitasmoak** nahiz horiek mamitzeko egitarauak (gaztelaniaz: *diseño de planes de normalización lingüística y programas de ejecución de los mismos*).

Horregatik ere, esan daiteke artean normalizazio planaren kontzeptua mugatzen zela, neurri handi batean, hizkuntza-eskakizunen esleipena eta langileen gaitasuna planifikatzera. Hortik haratagoko esparrurik oraindik ez zen aurreikusten, edo, gehienera ere, lauso eta urruti zeuden.

224/1989 Dekretuak 1997ra arteko indarraldia izan zuen, gaur egun indarrean den 15/1997 Dekretua onartu arte. Bitartean, Dekretu hori egokitzen eta osatzen zuten beste lau dekretu eman ziren:

- 264/1990 Dekretua, urriaren 9koa, lanpostuei izendatutako hizkuntza-eskakizunen derrigortasuna zehazteko irizpideak ezartzen dituena.
- 238/1993 Dekretua, abuztuaren 3koa, EAEko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua ezartzeko zenbait neurri arautzen dituena.
- aurreko Dekretu horren zati batzuk aldatu zituen otsailaren 15eko 89/1994 Dekretua.
- 517/1995 Dekretua, abenduaren 19koa, Euskal Autonomia Elkartearen herri-administrazioetan hizkuntza-normalkuntza-prozesuaren jarraipenerako behin-behineko neurri batzuk arautzen dituena.

Aipagarria da 238/1993 Dekretuaren bitartez, zabaldu egin zela normalizazio prozesuaren eragin esparrua, lehengo erakundeez gain beste erakunde hauek ere barne hartuz:

- Herri-kontuen Epaitegia
- Lan Harremanen Kontseilua
- Lurralde historikoetako batzar nagusiak
- Eusko Legebiltzarra eta Arartekoa, Legebiltzarreko Mahaiak aurrez ontzat eman eta, kasua bada, beretzat onartzen badu (5. Gehigarritzko Xedapena).

Eta, egitasmo honen harirako, aipagarria da, halaber, 238/1993 Dekretuak “*planaren*” inguruan egiten duen aipamen zehatza, ordura arteko zehatzena, hain zuzen ere:

ALDI BATERAKO XEDAPENAK

*Laugarrena.– Dekretu honek indarra hartzen duenetik aurrera, hizkuntzaren normalkuntzari buruzko arauteria ezar dakiekeen erakundeez plangintzarako lehenengo aldiari dagokion **hizkuntza-normalkuntzarako plana** taiutuko dute, orokorrean beste erakunde guztientzako finkatutako azken eguna beretzat ere bera izan dutela, hau da, 1995eko uztailaren 30a.*

Ez zen ematen, halere, “hizkuntza-normalkuntzarako planaren” zer-nolakoari buruzko argibiderik. Pentsatu behar da, bada, orduan ere planaren kontzeptua hizkuntza-eskakizunak lanpostuei esleitzearekin lotzen zela, gehienbat, ordura arte bezala.

1.4.3 86/1997 Dekretua.

I. Plangintzaldia 1995eko abenduan amaituta, bi urteko aldi-baterako epearen ondoren, gaur arte indarrean dirauen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua onartu zen. Dekretu horrek aurreko dekretu guztiak batu eta testu bakarrera ekarri zituen.

Eta, horrez gain, zehaztapen baliotsuak gaineratu zituen, administrazioen hizkuntza-normalizazioan sakontzen jarraitzea ahalbidetzen zutenak. Egitasmo honen harira datozen horietako aipagarrienak jasoko ditut, laburtuta:

- Herritarren eskubideak bermatze aldera, herri-administrazioei neurriak hartu beharra ezartzen die, euskara zerbitzu-hizkuntza ez ezik lan-hizkuntza ere izan dadin.
- Erreparatu behar da lehen aldia zela bi kontzeptu horiek arau mailako testu batean jasotzen zirena. Kontzeptua aipatzeaz gain, 86/1997 Dekretuak bi kontzeptuon definizioa ere eman zuen:

Lanpostu bati dagozkion zereginak betetzerakoan administratuaekin ahozko zein idatzizko harremanak izan behar direnean, harremanotan erabiltzen den hizkuntza, horixe da zerbitzu-hizkuntza, Dekretu honi dagokionez.

EUSKARAREN ERABILERA PLANAK ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN: LEHENA ETA GEROA

Era berean, lanpostu bati dagozkion zereginak betetzerakoan bertan erabiltzen den hizkuntza, horixe izango da lan-hizkuntza.

- Dekretuaren eragin esparruan beste erakunde garrantzitsu bat gehitu zen: Euskal Herriko Unibertsitatea, administrazio eta zerbitzu langileei dagokienez (Euskal Herriko Unibertsitatea bilduta zegoen, ordurako, hizkuntza-eskakizunen sistemara, baina, formalki, ez zen arau-testuetan jasota egon).
- Espresuki ezartzen ditu bost urteko iraupena duten plangintzaaldiak.
- Ordura arte ez bezala, ugariak eta zehatzagoak dira planari buruzko aipamenak, eta ezartzen da erakunde bakoitzak bere Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planean jasoko dituela normalizazio-helburuak betetzeko erabiliko duen hizkuntz politika eta bere nondik norako eta jarraibide nagusiak.
- Lehen aldiz, halaber, administrazio bakoitzak egin beharreko euskararen erabilera normalizatzeko planen edukiak zedarrizten dira:
 - Erakundearen hizkuntz egoera eta, horrez gainera, lanpostu bakoitzari zein hizkuntz eskakizun ezarri zaion eta, hala badagokio, derrigortasun-data. Era berean, euskara-maila eta langileen hizkuntz gaitasun-prozesuari buruzko informazioa ere jasoko da bertan.
 - Entitatearen hizkuntz helburuen arabera, zenbat administrazio-atal elebidun eta euskarazko sortuko diren proposatuko da eta, era berean, zehatz-mehatz azalduko da zein lanpostuk osatzen duten atal bakoitza eta zein diren ezarri edo, hala badagokio, moldatuko diren derrigorrezko hizkuntz eskakizunak.
 - Administrazio-atal elebidunek eta, batez ere, euskarazko administrazio-atalek aurrera egin dezaten erakundeak hartuko dituen neurriak. Era berean, zehatz-mehatz azalduko da euskara nola erabili eta tratatuko den ondorengo esparruetan:
 - administratuekin eta gainerako erakundeekin izaten diren ahozko zein idatzizko harremanetan.
 - jendaurreko ekitaldietan.
 - argitalpen-arloetan.
 - hizkuntz paisaian.
 - oro har, hizkuntz helburuak betetzeko, erakunde bakoitzak ezartzen dituen gainerako jarduera-esparruetan.
 - Erakundeak kontratazio-arloan erabiliko diren neurriak, batez ere, hirugarren batzuek herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean.

EUSKARAREN ERABILERA PLANAK ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN: LEHENA ETA GEROA

- Ordura arte ez bezala, behin betiko balioa aitortzen zaie 2., 3. eta 4. hizkuntza-eskakizunei. Aldiz, 1. hizkuntza-eskakizunari urte beteko balioa aitortzen zaio (gerora, 2008an, behin betiko balioa eman zitzaion 1. hizkuntza-eskakizunari ere ⁵⁾.

Orain arte azaldu dudan lege garapen honetan guztian, bada, erabilera planen inguruko aipamenen eta zehaztapenen progresio bat antzematen da. Euskararen Legeak iragartzen dituen neurri generikoetatik eta 86/1997 Dekretuaren artean, gero eta konkrezio handiagoa eskaintzen dute arauak eta gero eta betekizun zehatzagoak ezartzen dira.

Horrenbestez, arau horiei guztiei helduta, herri-administrazioek euren normalizazio egitasmoak diseinatu, onartu eta inplementatu dituzte urteetan zehar. Eredu eta metodologia desberdinak erabili dira horretarako. Nork berea izan duela ere esan daiteke, ia, erabilera planak egiteko modu bateraturik ez baita eraiki. Horren faltan, kasuan-kasuan ondoen irizitako formulak erabili dituzte administrazioek. Denak, jakina, baliagarriak dira, baldin eta lortu nahi dena erdiesteko balio badute.

Hemen amaituko dut lege esparruaren inguruko errebisioa. 86/1997 Dekretua da gaur egun ere administrazio publikoaren normalizazioa gidatzen duen arau-testua (beti ere, bere eragin esparruko erakundeei dagokienez, hau da: EAEko Adm. Orokorra, Herri Kontuen Epaitegia, Lan Harremanen Kontseilua, foru eta toki administrazioak, Batzar Nagusiak, Euskal Herriko Unibertsitateko administrazioan eta zerbitzuetan diharduten langileak, eta Legebiltzarra eta Arartekoa). Gerora onartu dira beste arau orokor batzuk ere, dekretu edo ebazpen mailakoak (egiaztapen sistemei buruzkoak, baliokidetzei edota salbuespenei buruzkoak, etab.) baina ez datoz egitasmo honen harira eta ez ditut hemen aztertuko.

10/1982 Euskararen Legean emandako zertzelada orokorrak (herri-agintariak neurriak hartzea langileak euskalduntzeko, agintariak erabakitzea zein lanposturako den beharrezko hizkuntza biak jakitea eta zeinetarako merezimendu...) gauzatzen joan dira gutxi-asko. Herri-administrazioaren tamaina eta ezaugarriak kontuan izanda, lan itzela izan denik ezin ukatu, nahiz eta, era berean, aitortu behar den oraindik ere herri-administrazio elebiduna lortzeko asko falta dela.

Gaur egungo egoerara heltzeko bidea ere ez da erabat lineala izan. Hizkuntza-eskakizunetan oinarritutako sistema izan da bide-orri komuna hogeita hamar urteotako prozesuan, eta administrazioen hizkuntza-normalizazioa bide horri jarraituta garatu da. Alabaina, zenbaitzuetan, pentsatu izan da euskararen erabilerak ez duela beti bide-orri berbera izan, eta, nolabait, bi errai desberdinetan ibili izan direla funtzio publikoaren hizkuntza-normalizazioa eta euskararen erabileraren normalizazioa. Formaz normalizatu bidean, baina, fondon, ez hainbeste.

Horregatik, merezi du, lege-oinarriaren errebasoarekin batera, euskararen erabilerarena ere egitea, normalizazio prozesuan baitan.

⁵ Apirilaren 8ko 64/2008 Dekretuaren 3. Xedapen Iragankorra.

2.- Hizkuntza-eskakizunak: eraikin erraldoi baten zutabeak

Duda barik, esan daiteke hizkuntza-eskakizunen sistema izan dela euskal funtzio publiko osoa euskalduntzeko zutoina. Baina, aldi berean, esan daiteke baita ere, neurritz handia den egituran (hogeita hamar mila lanpostutik gora, ia hirurehun erakunde desberdinetan banatuta) erraz antzean txertatzea lortu den kontzeptua izan dela. Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeak *Lanpostu Zerrenda* administrazioen barne antolamendua ordenatzeko tresna gisa erabaki zuen momentutik, aparteko zailtasunik gabe gehitu ahal izan da tresna horretara hizkuntza-eskakizunen eta derrigortasun-daten ezarpena, prozedura bateratuak eta irizpide komunak jarraituta.

Egia da, alabaina, horren ondorioz, beste alderdi batzuk ere garatu behar izan direla. Horietan konplexuenetakoak, dudarik gabe, administrazioetako langileak euskalduntzeko sistemak eta hautaketa prozesuetan euskararen ezagutza baloratzeko eta egiaztatzekeo sistemak eraikitzea izan da.

Jakina den moduan, urteetako lana eraman du horrek guztiak, ia ezerezetik sortu eta gaur egungo egoerara iritsi arte. Lan erraldoia, zalantzarik gabe.

Euskararen erabileraren ikuspegitik, ordea, lotura ez da hain lineala izan. Lege garapenak eta, ondorioz, hizkuntza-eskakizunen sistema herri-administrazio guztietara hedatzeak, langileak milaka euskalduntzeak edota hizkuntza-eskakizunak beste milaka egiaztatzeak ez du ekarri euskararen erabileraren neurri bereko hazkundera.

Egitasmo honen harirako, hiru arotan laburbilduko nituzke urte hauetan guztietan herri-administrazioetan euskararen erabilerak izan duen eboluzioa:

- Itzulpenaren aroa
- Herri-langileen gaitasunaren aroa
- Erabilera indartzearen aroa

2.1 Itzulpen aroa

Itzulpena izan da, eta da, oraindik ere, administrazioan euskararen presentzia bermatu eta, gaur egun ere, bermatzen duen bide nagusia, idatzizko ekoizpenari dagokionez behintzat. EAEko Autonomia Estatutuak hasitako garai berrian, erabat gaztelaniazkoa zen herri-administrazioen jarduna. Euskarari aitortutako ofizialtasunak, eta horren ondorioz, herri-agintariei ezarritako betebeharrak ekarri zuten ordura arte ia existitu ez zena sortzen hasi beharra. Esaterako, egoera legal eta politiko berriak ekarri zuen boletin ofiziala, *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria* deitu zena, abiatu beharra eta, horrekin batera, aldizkariko testuak itzuli beharra (Espainiako gerra zibilaren aurreko Errepublikaren garaian horren aurrekaririk egon bazen ere, egoera

EUSKARAREN ERABILERA PLANAK ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN: LEHENA ETA GEROA

guztiz berria zen, dudarik gabe). Halaber, horrek ekarri zuen, besteak beste, euskararen korpusa administrazioaren hizkera berezira egokitu beharra, Aldizkariak jasotzen zituen testuak euskaraz eman ahal izateko. Gauza bera gertatu zen, noski, hiru lurraldeetako boletín ofizialetan, eta, oro har, administrazioetan erabiltzen ziren beste testu askotan ere.

Batez ere euskararen lexikoari eta morfosintaxiari eragiten zion premia berriak. Orokorrean, itzulpenek gaztelaniazko testuen ezaugarri, itxura eta barne antolamendu berberei jarraitzen zieten eta horrek eskatzen zuen gaztelaniazko hitz, esamolde eta egitura askoren euskarazko ordaina sortu edo asmatu beharra. Azken batean, hizkera administratiboa eta juridikoa ia ezerezetik egin behar izan zen.

XX. mendeko 60-70 hamarkadetatik gero indar handiagoz zetorren euskararen berpizkundearen ezaugarriekin bat eginez, administrazioan ere jarrera garbizaleak indar handia izan zuen euskararen corpusari zegokionez, ordura arte existitzen ez ziren hitz eta esamolde berriak sortuz. Alabaina, jarrera garbizaleak ez zuen zalantzan jarri gaztelaniaren hizkera eredua (esaldi luze eta, sarritan, ulertzen zailak, esaldi subordinatuz osatutako kateak, etab.) eta, ondorioz, euskaraz ere administrazio hizkera zail, astun eta ulertezina zabaldu zen.

Gaur egungo ikuspegitik ikusita, baieztatu daiteke euskararen erabilerrari begira bide hori ez zela izan oso lagungarria.

Apurka-apurka, ordea, beste joera batzuk joan ziren azaltzen, testuen ulerterraztasunari, funtzionaltasunari eta komunikagarritasunari garrantzia ematen ziotenak. Ikusirik administrazioaren esparruan itzulpengintzak zeuzkan gabeziak eta premiak, IVAPek itzulpen eskola bat jartzeko ahalegina egin zuen 1980ko hamarkadaren amaieran (Administrazioeko eta Lege-Arloko Itzulpen Eskola-ALAIE). 1986an onartu zen ALAIE sortzeko Dekretua, diplomatura mailako ikasketa homologatuak izateko asmoz. Halere, homologazio lortzeko helbururik ez zen lortu eta urte gutxiren buruan ekimena bertan behera utzi behar izan zen.

Aldi berean, Erresuma Batuan urteetan garatzen ari zen joera ere iritsi zen gurera. Plain English deituriko egitasmoak ingeles administrazioan erabiltzen zen hizkera erraztea zuen helburu. Horretan oinarrituta, euskarazko administrazio hizkera ere errazteko, arintzeko eta ulergarriagoa egiteko lanak hasi ziren. IVAPen 1990ko hamarkadaz geroztik garatu da bide hori. Aurreko garbizaleen garaia gaindituz, joera berri horrek euskarazko testuen egitura eta estiloa ere garatzen ditu; gainera, gaztelaniazko testuen egituren menpekotasuna ere gainditzea proposatzen du, eta, zentzu horretan, euskarazko sintaxiarekin eta morfologiarekin bat datorren eredu propioa lantzea bultzatzen du. Halaber, lexikoari dagokionez, herritarren hizkerara hurbiltzea proposatzen du, maileguak onartuz eta termino berrien asmakizunetatik aldentuz.

Euskararen erabilera bultzatzeari begira, joera berri hori baliagarriagoa da zalantzarik gabe, itzulpenari ez ezik, euskarazko testuak sortzeari ere eragiten baitio: erraztu egiten du euskaraz idaztea eta erraztu egiten du euskarazko testuak ulertzea, eta, hori horrela den neurrian, erraztu egiten du euskara erabiltzea.

Itzulpenaren aroa ez da amaitu oraindik ere. Herri-administrazioetan, batez ere euskaldunagoetan, euskarazko sorkuntza gero eta handiagoa bada ere, begi-bistakoa da, oro har, euskaraz idatzitako gehiena oraindik ere itzulpena dela. Aurrerantzean ere horrela izango

dela aurreikusi daiteke zalantzarik barik, eta, hala izanik, komenigarria da itzulpenak normalizazioaren barruan izan behar duen lekuaz gogoeta egitea. Egitasmo honen amaieran jorratuko dut berriro gai hau.

2.2 Herri-langileen euskalduntzearen aroa

Hizkuntza-eskakizunen ezarpenaren ondorioz, bigarren aro garrantzitsuari ekin zitzaion herri-administrazioetan: langileen hizkuntza-gaitasunaren eta egiaztapenaren aroari. 6/1989 Euskal Funtzio Publikoaren eta 224/1989 Dekretuaren ondotik, erakunde guztiek euren lanpostuen hizkuntza-eskakizunak ezartzen joan ziren neurrian, nabarmen areagotu ziren langileak euskalduntzeko eta alfabetatzeko premiak. Administrazioetan ziharduten langile gehienak erdaldunak izanik, lanpostuei ezarritako helburuetara heldu behar izateak nolabaiteko “euskalduntze masiboa” eragin zuen. Esan behar da langile euskaldunak ere bazirela herri euskaldunetako administrazioetan, baina, gehienak euskaraz alfabetatu gabeak.

Urteetan zehar, bada, milaka herri-langileren euskalduntze-alfabetatzea izan da euskararen erabileraren normalizazioari begira emandako urratsik handienetakoa.

Herri-langileen euskalduntzea ahalbidetzeko, IVAPek finantzazio bideak ezarri izan ditu 224/1989 Dekretuaz geroztik, bai langileen eskolatzea ordaintzeko, bai langile horien ordezkapenak diruz laguntzeko. Ondorengo datuek garbi erakusten dute euskalduntzean emandako mobilizazioa:

1990-1995 urte bitartean (I. Plangintzaldia)

IKASTURTEA	GUZTIRA ⁶
1990-1991	3.590
1991-1992	4.482
1992-1993	3.870
1993-1994	3.943
1994-1995	3.528

2000-2015 urte bitartea (II – V. Plangintzaldia)

IKASTURTEA	AD.OROKORRA ⁷	FORU ALDUNDIAK	EHU	OSAKIDETZA	UDALAK ETA BESTE	GUZTIRA
2000-2001	814	455	295	1.027	1.045	3.636

⁶ Egitasmo honetarako, bi iturri nagusitatik bildu dira euskalduntzeko ikastaroetan aritutako ikasle kopuruak: 1990-91 ikasturtea eta 1994-95 ikasturtera bitartekoak, I. Plangintzaldiko Ebaluazio Txostenetik, eta, 2000-01 ikasturtea geroztikoak, IVAPetik.

⁷ Administrazio Orokorraren barruan Eusko Jaurlaritzako sailletako eta euren erakunde autonomoetako langileak zenbatu dira. Ez dira zenbatu hezkuntza sistemako irakasleak (IRALE programaren bitartez eskolatuak) ez eta Ertzaintzaren normalizazio planaren barruan euskara ikastaroetan ibilitako ertzainak ere. Bi esparru horiek egitasmo honetatik kanpo geratzen dira, baina ez da ahaztu bi esparruotan ere hizkuntza-gaitasuna hobetzeko ahalegin handia egin behar izan dela.

EUSKARAREN ERABILERA PLANAK ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN: LEHENA ETA GEROA

2001-2002	894	505	309	924	320	2.952
2002-2003	781	462	313	855	325	2.736
2003-2004	644	370	275	1.401	425	3.115
2004-2005	697	424	282	2.734	546	4.683
2005-2006	700	487	336	3.326	575	5.424
2006-2007	632	430	341	2.502	263	4.168
2007-2008	384	371	307	2.761	521	4.344
2008-2009	546	379	316	2.470	401	4.112
2009-2010	586	443	300	2.171	369	3.869
2010-2011	537	417	236	1.870	322	3.382
2011-2012	457	411	178	1.403	373	2.822
2012-2013	494	353	122	1.333	254	2.556
2013-2014	478	283	113	1.350	245	2.469
2014-2015	522	251	118	1.307	213	2.411

Beste aldetik, hizkuntza-eskakizunen sistema ezartzeak, langileen gaitasun-mailaren egiaztapena ere bideratu beharra ekarri du eta, horren ondorioz, urte guzti hauetan, milaka izan dira hizkuntza-eskakizunen azterketetara aurkeztu diren langileak.

Esparru horrek garapen esanguratsua izan du urteetan zehar. 224/1989 Dekretuari jarraiki, hasieran IVAPek bakarrik egiten zituen egiaztatze-azterketak, baina, gerora, beste azterketa batzuetan lortutako emaitzak elkarrekin baliokidetzeko neurri desberdinak hartu izan dira, Europako Erreferentzia Marko Bateratua aintzat hartuta (HABEko mailak gaintzeko azterketak, EGako azterketak, hizkuntza-eskoletako azterketak, hezkuntza-sistemako irakasleen azterketak, etab.).

Egiaztapena, gainera, ez dagokie bakarrik herri-langileei. Administrazioa lanean sartu nahi duten herritarrei ere badagokie, hautaketa proben bitartez.

Urteen joanean, batetik zein bestetik, milaka egiaztapen lortu dira, taula honetan ikusi daitekeen bezala⁸:

Egiaztatutako mailarik altuena	Kopurua
B1	51.208

⁸ 2017ko maiatzaren 15eko datuz Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egon den egiaztagirien kopurua.

EUSKARAREN ERABILERA PLANAK ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN: LEHENA ETA GEROA

B2	55.729
C1	163.289
C2	4.744
GUZTIRA	274.970

Alderaketa erakusgarria delakoan, I. Plangintzaldiaren amaierako ebaluazioan, 1990-1995 urteei buruzkoan, hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatuta zeukaten herri-langileen kopurua 7.294koa zen. Hogei urteren buruan, beraz, hogeita hamasei aldiz biderkatu kopuru hori.

Horrez gain, kontuan izan behar da neurriak hartu direla, halaber, ikasketak euskaraz egiteagatik egiaztatze-azterketak egitetik salbuesteko. Horrenbestez, pentsatzekoa da datozen urteetan biderkatu egingo direla bide batetik nahiz bestetik euskararen gaitasunaren aitortpenen bat izango duten pertsonak, direla herri-langileak, direla administrazioetik kanpoko herritarrak.

Adierazgarri delakoan, I. Plangintzaldiaren betetze-maila eta V. Plangintzaldiaren erdian eman berri dena alderatuz gero, honako ondorioa daukagu:

- I. Plangintzaldiaren amaierako ebaluazioan jaso zenez⁹, EAEKO herri-administrazioetan derrigortasun-data zeukaten 8.915 lanpostuetatik, 3.829 lanpostutan egiaztatuta zegoen lanpostuari zegokion hizkuntza-eskakizuna (%**42,95**).
- V. Plangintzaldiaren tarteko ebaluazioan jaso denez¹⁰, EAEko herri-administrazioetan derrigortasun-data daukaten 23.439 lanpostuetatik, 17.591 lanpostutan egiaztatuta dago lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna (%**80,2**).

Jauzia esanguratsua da, bai kopuruaren aldetik, bai portzentajearen aldetik: **bikoiztu** egin da lanpostuko hizkuntza-eskakizuna egiaztatutakoen ehunekoan; eta, gainera, hori guztia gertatu da lanpostu kopurua hirukoiztu egin den testuinguru batean.

Beraz, *prestakuntzaren aroa* deitu dezakegun hau benetan oparoa izan dela esan daiteke. Erabilerari dagokionez, baina, uste zena baino makalagoa izan dela ere aitortu behar da.

Urte hauetan guztietan sarriegi utzi da erabileraren normalizazioa langileen gaitasuna hobetzearen pentzutan, bi faktoreen artean erlazio zuzena dagoela uste izanda. Denborak erakutsi du, ordea, erlazioa bai, badagoela, baina ez dela nahikoa; langileak euskaldundu arren eta dagokien hizkuntza-eskakizuna lortu arren, ez direla berez eta automatikoki hasten euskaraz egiten.

⁹ Euskararen erabileraren normalizazioa prozesuaren ebaluazioa euskal herri administrazioetan. 1995. Hizkuntza Politikarako Sailordetza.

¹⁰ Euskararen erabileraren normalizazioa herri administrazioetan. V. Plangintzaldiko (2013-2017) tarteko ebaluazio txostena. 2016ko maiatza. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.

Hutsune hori da, hain zuzen ere, bueltaka eta giraka darabilguna, irtenbide arrakastatsu eta erabatekorik aurkitu ezinik, gaur egun ere. Hizkuntza-eskakizunen sistema erraldoiak administrazioaren euskalduntzean onura eta aurrerapauso sendoak emateko bide eman du, baina, berak bakarrik erabileran gora egiteko bermerik ez du ekarri.

Terminologian ere, sarri, kontzeptuak gurutzatu egin izan dira. Hala, adibidez, “*euskararen erabileraren normalizatzeko plana*” deitu izan zaio hizkuntza-eskakizunen eta derrigortasun-daten esleipena baino ez den egitasmoari; edo, era berean, *erabilera normalizatzeko planaren ebaluazioa* deitu izan zaio hizkuntza-eskakizunen eta derrigortasunen betetze-mailaren ebaluazioa baino ez denari.

Itzulpenaren aroa amaitu ez den bezalaxe, gaitasunaren aroa ere ez da amaitu. Pentsa genezake euskalduntzeko premiek (hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeke premiek) beheranzko joera izango dutela datozen urteetan, besteak beste, administrazioa sartzen diren belaunaldi berriek, neurri handi batean, mailak egiaztatuta ekarriko dituztelako. Halere, aurreikusi daiteke oraindik ere erabilerarekin lotutako bestelako gaitasunak landu beharra egongo dela, hau da, aurrerantzean ere lanean euskara erabiltzearekin lotutako gaitasunak eta euskara lan-hizkuntza gisa garatzearekin lotutako gaitasunak landu beharra egongo dela .

Erabileraren ikuspegitik, hortaz, esan daiteke, etorkizunean hizkuntza-prestakuntzaren helburua ez dela izango, horrenbeste, langileek *euskaraz jakitea* baizik eta langileek *euskara erabiltzen jakitea*.

2.3 Erabilera indartzearen aroa

Esan bezala, azken urteotan nabarmen ikusi da langileek euskara gaitasun ona (edo nahikoa) izatea ez dela erabileraren berme. Egia da, ezin ukatu, langileen gaitasun maila ona lortu duten erakundeek erabileran ere errazago ematen dituztela pausoak, erabilera indartzeko hartzen dituzten neurriak inplementatzerakoan gaitasun faltaren eragozpen hori behintzat gaindituta daukatelako.

Horren haritik, gero eta erakunde gehiagotan gaintitzen arei dira euren langileen gaitasunaren arazoa eta, horri esker, gero eta zehaztasun handiagoz lantzen ahal dituzte euren erabilera planak, helburu zehatzak ezarriz eta esparruz esparru neurriak hartuz.

Euskararen normalizazio planaren azken helburua erabilera normalizatua lortzea da, eta, gaur egun, erabat onartua eta zabaldua dago ahalegin guztiak horri begira jarri behar direla. Baina, esatea bezain erraza ez da egikaritzea. Esan daiteke, erakunde gutxi batzuk salbu, erakunde gehienek ez dutela euskararen erabileraren planifikazio sistematikorik egiten. Oro har,

EUSKARAREN ERABILERA PLANAK ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN: LEHENA ETA GEROA

erabileraren planifikazio-metodologiak falta dira, eta, gainera, administrazio gehienek ez dute planifikazio edo kudeaketa sistemen baitan funtzionatzeko ohiturarik.

Egiten diren ahaleginak, sarritan, nola edo hala gaitasunarekin lotutakoak izaten jarraitzen dute (trebakuntzako programak, EraMiak, etab.) edo, zuzenean, itzulpen lana areagotzen dute, baina ez da lortzen benetako aurrerapausorik ematerik erabilera errealean.

Ezin ukatu, ezta ere, zonalde euskaldunetako administrazio batzuetan aurrerakada handia eman dutela euskararen erabileran; baina, hala eta guztiz ere, baieztatu daiteke, *erabileraren aroa*, oro har, oraindik hastapenetan dagoela.

Nire ikuspegitik, bide berriak jorratu beharra dago administrazioetan euskararen erabileran eragiteko. Eta, susmoa dut, arrakasta erdiesteko, bide berrietan hainbat osagai uztartzen asmatu beharko dela, behintzat bost hauek, orden honetan:

- 1.- euskara erabiltzeko premia.
- 2.- euskara erabili arazteko aginpidea.
- 3.- euskara erabiltzeko gaitasuna.
- 4.- euskara erabili ahal izateko baliabideak.
- 5.- hori guztia antolatuko duten planifikazio eta kudeaketa sistemak.

Azken hori, bereziki garrantzitsua izango dela uste dut. Gaur egun administrazioetan gero eta indar handiagoz sartzten ari dira *kalitatearekin* lotutako ideiak eta kontzeptuak. Datozen urteetan, planifikazioa, plan estrategikoak, kudeaketa aurreratua... bezalako kontzeptuak gero eta barneratuago egongo direla aurreikusten da, eta, iruditzen zait euskararen erabilera eta euskararen erabileraren planifikazioa horretan guztian txertatuta egotea benetako gakoa izango dela dudarik gabe.

3.- Erabilera planen balantzea

Aurrera jarraitu aurretik, labur ditzagun egitasmo honetan orain arte aztertutakoak. Hiru ideia nagusi azpimarratu nahi ditut:

- Hizkuntza-eskakizunen sistema funtsezkoa izan da euskal administrazio publikorako sarbidea eta barne lehiaketa arautzeko eta alderdi horri guztiari ziurtasun juridikoa emateko. Horrekin batera, oso baliagarria izan da euskal administrazio publikoetan euskararen presentzia normalduaz joateko.
- Hizkuntza-eskakizunen sistema funtsezkoa izan da, baita ere, herri-langileen hizkuntza-gaitasuna hobetzeko.
- Erabilera planei dagokienez, legeriak gero eta zehaztasun handiagoa ezarri badu ere, kasurik gehienetan, erabilera planak ez dira planifikazio moldearekin diseinatu. Erabilera planak diseinatu beharko lirateke planifikazio-kontzeptuak eta planifikazio-tresnak aplikatuz.

3.2 Lorpenak eta lortu gabeak

Azken ideia horri helduko diot egitasmo honen hariari jarraitzeko. Eta, horretarako, galdera hau dago egin beharra: nolakoa izan da erabilera planen garapena herri-administrazioetan?

Hizkuntza-eskakizunen sistema irizpidez bateratuta ezarri da; erakunde guztiek antzeko bidea jarraitu dute eta, batetik bestera alderik egongo den arren, sistema nahiko homogeneoa izan da, eta da, gaur egun ere. Dena dela, hizkuntza-eskakizunak “*erabilera plana*” deritzon zerbait zabalago baten zati baino ez dira. Gorago ikusi dugun bezala, 86/1997 Dekretuak berak ezartzen ditu erabilera plan batek izan behar dituen gutxienezko osagaiak. Hortaz, nolakoak dira herri-administrazioetan egin diren planak?

Herri-administrazioen normalizazio prozesua abiatu zenetik bost plangintzaldi igaro dira dagoeneko. Tarte horretan lehenago edo beranduago, 86/1997 Dekretuaren eraginpean dauden erakunde gehienek egin dute beren erabilera plana.

Horri dagokionez, aipatu behar da ez dagoela datu bateraturik erabilera plana onartuta duten erakunde kopuruaren inguruan. Plangintzaldietako ebaluazio txostenetan informazio hori ez da beti irizpide beraren arabera islatu eta, horrenbestez, zaila da datu horren jarraipena egitea. Plangintzaldien ebaluazio txostenetan era desberdinetan islatu dira plana onartuta duten erakunde kopuruak, eta ez dirudi datuak guztiz konparagarriak direnik. Adibidez:

- Batzuetan, bakarrik udalei buruzko kopuruak ematen dira; edo plana onartuta duten erakunde zerrenda ematen da baina ez da ematen plana eduki beharko luketen erakunde kopuru osoa (I. Plangintzaldia). Ez dago, beraz, ehuneko zehatza jakiterik.

EUSKARAREN ERABILERA PLANAK ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN: LEHENA ETA GEROA

- Beste batzuetan, bakarrik ehunekoak ematen dira eta ez da kopururik ematen (III. Plangintzaldia).
- Beste batzuetan, kopuruak eta ehunekoak ematen dira (IV. eta V. Plangintzaldiak), baina zenbatzeko moduak desberdinak dira lehenagoko plangintzaldiekin konparatuta. Adibidez, Eusko Jaurlaritza, batzuetan, erakunde bakartzat hartzen da, baina, beste batzuetan, barne hartzen dituen sailak bereizi egiten dira eta guztiak zenbatzen dira.
- Oro har, ez da esaten zenbat erakundeak eduki duten plana onartuta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzatik bidalitako galdetegia erantzun gabe utzi dutenen artean. Horrekin lotuta, plangintzaldi bakoitzean unibertso osoa zein izan den ere jakin beharko litzateke (nahiz eta esan daitekeen, borobilduta, 300 herri-administrazio inguruk osatzen dutela 86/1997 Dekretuaren esparrua; horietatik gehienak, udalak: 251 udal).

Zalantza horiek gorabehera, estimazio bat egin dezakegu hasierako eta azkeneko ebaluazio txostenetan islatu diren datuetan eta ehunekoetan oinarrituta, eta esan dezakegu erakundeen %80 inguruk eduki dutela plana onartuta plangintzaldi bakoitzean:

PLANGINTZALDIA	PLANA ONARTUTA DUTEN ERAKUNDEAK	
I Plangintzaldiaren amaierako ebaluazioa (1995 urtea)	216	%72
IV Plangintzaldiaren amaierako ebaluazioa (2012 urtea)	242	%81
V Plangintzaldiaaren tarteko ebaluazioa (2015 urtea)	256	%84

Ikusten denez, hasieratik izan da nahiko altua plana onartuta izan duten herri-administrazioen kopurua, eta gora egin du pixkanaka. Bestaldetik, berriz, nabarmentzekoa da oraindik ere badirela erabilera plana onartu gabe duten erakundeak (V. Plangintzaldiaren tarteko ebaluazio txostenean esaten denez, planik ez duten erakunde gehienak udalak dira, eta mankomunitateak).

Edozelan ere, batz bestea jo daiteke plangintzaldi bakoitzean 225 erakunde inguruk onartu dutela bere plana. Esan daiteke, beraz, urte guzti hauetan 1.100 erabilera planetik gora egin direla.

Kopuru esanguratsua da, eta interesgarria izango litzateke planen azterketa sakonagoa egitea. Egitasmo honen helburua, ordea, askoz xumeagoa da, eta ez dugu hainbeste sakonduko. Halere, ezaugarri –gabezia- komun hauek dituztela baieztatu daiteke:

- ✓ Ez da patroi edo eredu bateraturik jarraitu. I. Plangintzaldian HPSk hastapeneko eredu bat jarri zuen erakundeen eskura (Olabe erakundea) eta III. Plangintzaldian aplikazio informatiko bat (Irati). Halere, bai bata, bai besteak ezarpen mugatua izan zuten erakundeetan. Bestalde, UEMAn dauden udaletan ere eredu propioa jarraitzen da.

EUSKARAREN ERABILERA PLANAK ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN: LEHENA ETA GEROA

- ✓ Metodologikoki ere planteamendu desberdinak jarraitu dira. Oso ikuspegi desberdinetatik abiatuta planteatzen dituzte helburuak eta neurriak. Batzuetan prestakuntza-planak dira beste ezer baino gehiago.
- ✓ Forma aldetik ere eredu askotakoak dira: batzuetan egitasmoak dira; beste batzuetan arauak (dekretuak, ordenantzak...); beste batzuetan txostenak, etab.
- ✓ Zehaztasun gutxi agertzen dute. Gehienetan helburu generikoegiak ezartzen dituzte, epe zehatzik ez da aurreikusten, arduren banaketarik ez da zehazten, baliabiderik ere ez... Sarritan, testu orokorregiak izaten dira, interpretazio askotara irekiak, norabide eta jokabide garbirik adierazten ez dutenak.
- ✓ Gutxitan aurreikusten da adierazlerik. Helburuak nekez kuantifikatu daitezke, beraz, nekez neurtu daitezke.
- ✓ Gutxitan aurreikusten da plan osoaren errebisioa eta ebaluazioa egiteko sistemarik (partzialki bai; adibidez, hizkuntza-eskakizunen ezarpena beti ebaluatzen da, egiaztapenaren betetze-maila neurtuta).
- ✓ Erabilera planak gutxitan egon dira erakundearen kudeaketan integratuta. Planak, gehienetan, euskararen gaia daraman zerbitzuaren gai partikularra izan dira (dena den, badirudi joera hori aldatzen ari dela azken urteetan).
- ✓ Planak ez dira planifikazio mentalitatetik diseinatu; ezta inplementatu eta ebaluatu ere. Erabilera planak ez dira benetako *planifikazio tresna* izan. Hori baino gehiago, hainbatetan, asmo, arau, aldarrikapen... bildumak izan dira. Erabilera planak izan beharko luke erakundearen bide-orria hizkuntzaren gaietarako, baina ez da horrelakorik lortu gehienetan.

3.2 Indarguneak eta hobetu beharrekoak

Esan behar da, baina, apurka-apurka egoera hobetzen joan dela, plangintzaldiz plangintzaldi. Eta, edozein modutan ere, ez da ikuspegi negatiboa bakarrik nabarmendu behar. Gabeziak gabezia eta arazoak arazo, ukaezina da erabilera planek onurak eta aurrerapauso esanguratsuak ekarri dituztela herri-administrazioetan euskararen erabilera hedatzen joateko.

EUSKARAREN ERABILERA PLANAK ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN: LEHENA ETA GEROA

Zentzu horretan, gaizki egindakoetan urtzea baino, aurrera nola egin asmatzea da garrantzitsuena. Eta, horretarako, beharrezkoa da kokatzea gaur egun non gauden.

Horretarako, erabilera planen gaur egungo egoera ulertzen lagunduko duen AMIA orokor bat landuko da segidan:

EUSKARAREN ERABILERA PLANAK ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN: LEHENA ETA GEROA

AHULEZIAK	MEHATXUAK
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ez dago metodologia estandarrik eta bateraturik. ▪ Gehienetan ez dira planifikazio-tresnak erabiltzen (plan estrategikoak, kudeaketa planak...). ▪ Planen diseinua eta ebaluazioa ez datoz bat. ▪ Gehienetan ez dago helburu neurgarririk. ▪ Orokorrean, planifikazioaren kudeaketari buruzko ezagupena mugatua da oraindik ere, bai normalizazio teknikarien aldetik, bai arduradunen eta gainerako langileen aldetik. ▪ Normalizazioarekin zerikusia duten zenbait gai ordenatu gabe dago, adibidez, itzulpengintzaren funtzioa, euskaraz/elebietan/gaztelaniaz lan egitearen definizioa, etab. ▪ Planifikazio prozesuak denbora eta baliabideak eskatzen ditu. Ez dira prozesu arinak. Are gehiago erakunde handietan. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Euskararen plana euskara teknikariaren txokoan mantentzea. ▪ Lidergo eza, bai agintarien partetik, bai normalizazio teknikarien partetik. ▪ Erakundearen inplikaziorik ez izatea. ▪ Langileen esku uztea planean aurreikusitakoa betetzea. ▪ Alderdi ideologikoak: euskararen erabilera galgatzeko joera izatea, bai agintarien aldetik, bai langileen aldetik. ▪ Orokorrean, inertiak eta ideologiak eragindakoak dira mehatxurik nabarmenak.
INDARRAK	AUKERAK
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Urteetako eskarmentua hizkuntzaren erabileran eragiten, bai normalizazio teknikarien partetik, bai agintarien eta langileen partetik. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Erakundeetan gero eta gehiago ari dira ezartzen kudeaketa hobetzeko sistemak.

EUSKARAREN ERABILERA PLANAK ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN: LEHENA ETA GEROA

- | | |
|--|--|
| <ul style="list-style-type: none">▪ Orokorrean, aldeko borondate politikoa.▪ Kudeaketa sistemen inguruko gero eta eskarmentu eta prestakuntza handiagoa (EFQM, Aurrerabide, PDCA zikloak, etab.).▪ Erabilera aurrerapausoak eman ahal izateko herri-langileen gero eta hizkuntza-gaitasun hobia dago. Baita, orokorrean, agintariena ere.▪ Erabilera sustatzeko eta indartzeko programak gero eta ugariagoak dira eta gero eta normalagozat hartzen dira programa horien baitan erabakitzen diren neurriak. | <ul style="list-style-type: none">▪ Politika publikoen eraginkortasunari buruzko gero eta kontzientzia handiagoa dago, eta, halaber, gero eta kontzientzia handiagoa dago politika publikoetan hizkuntza ofizialen kudeaketa zeharkako osagai funtsezkoa dela.▪ Plangintzaldi berri baten aurrean gaude.▪ Gero eta onartuago dago helburu nagusia erabilera areagotzea dela.▪ Agintari eta langile askoren aldeko jarrera eta lanean euskara erabiltzeko gogoia.▪ Alderdi juridikotik ere gaintu dira euskara erabiltzeko egon diren zenbait traba eta aurreiritzi, bereziki Udal Legea deiturikoaren ondotik. |
|--|--|

Hori guztia kontuan izanda, igarotako urteen perspektibatik eta balantzan alde onak eta ez hain onak ipinita, ondorio hau nagusitu behar da, nire iritziz:

Erabilera planen eragina ez da izan beharko zuen adinakoa. Zenbatekoa izan beharko zuen ez da inon aurreikusita egon, baina, normalizazioaren ikuspegitik, baieztatu daiteke bost plangintzaldiren ostean (hau da, hogeita bost urtetik gora; alegia, generazio bat) administrazioetan euskararen egoera urruti dagoela normala izatetik, oro har.

Horrenbestez, aurrera begira, beharrezkoa dirudi erabilera planen eraginkortasuna areagotzea. Eraginkortasuna, beti ere, erabileraren ikuspegitik hartuta, ez bakarrik gaitasunaren edo hizkuntza-eskakizunen betetze-mailaren ikuspegitik hartuta.

Beraz, erabilera planen eraginkortasuna areagotzeko, ematen du, etorkizuneko planak beste molde batez diseinatu eta kudeatu beharko lirakeela. Alegia, ematen du, orain arteko moduak gaindituz, planak egin beharko lirakeela erakundearen planifikazio ikuspegitik eta erakundearen kudeaketa integralaren ikuspegitik, eta, zentzu horretan, lortu beharko litzatekeela erabilera planak erakundearen euskararen benetako *plan estrategikoak* izatea (“plan errektoreak”) denentzako ulergarri diren helburu argi eta neurgarriekin.

4.- Aurrera begirako gako batzuk

Esan bezala, urteetan zehar erabilera planak eraldatzen eta osatzen joan dira. Hasierako garaietan gehien bat hizkuntza-eskakizunen ezarpen soila izatetik, apurka-apurka, bere baitan osagai gehiago biltzera iritsi dira erabilera planak, jauzirik nabarmenena 86/1997 Dekretuaren eskutik etorri zelarik.

Egitasmo honen aurreko ataletan laburbilduta geratu dira erabilera planen bilakaera horren zertzelada nagusiak. Halere, egitasmo honen helburuan sartzen da, baita ere, erabilera planen aurrera begirako gakoak ere bistaratzea, behintzat nire uste apalez esanguratsuenak direnak. Hau da, erabilera planen eraginkortasuna areagotzea helburu hartuta, atal honetan zehar jorratuko ditut eraginkortasun horretan sakontzeko nire iritsiz esanguratsuenak diren gakoak.

Horrek ez du esan nahi beste batzuk ere ez daudenik, ez eta, tokian-tokian, hemen aipatuko ditudanak baino esanguratsuagoak ere egongo ez direnik. Baina, ikuspegi orokor baterako, baliagarriak direlakoan nago.

4.1 Erabiltzen ikasi. Planifikatu egin behar den prozesua

Herri-administrazioetan euskararen normalizazio prozesua abiatu zenean, langileen gaitasun eza zen gaintitu beharreko oztoporik nagusienetako bat. Gainera, beste esparru batzuetan uste zen bezala, honetan ere uste zen langileek euskara ikasten zuten heinean euren eguneroko lanean ere erabiliko zutela. Baina, jakina denez, hipotesi hori neurri txiki batean bakarrik da egia.

Gaitasuna izatea beharrezkoa da, baina ez da nahikoa. Izan ere, hizkuntza ikastea (gaitasuna lortzea) prozesu bat den bezala, erabilera ere prozesu bat da, bi bide paralelo dituen:

- **Bide pertsonala**, langile bakoitzak egin behar duena. Langileak denbora bat behar du, urrats batzuk eman beha ditu, egokitu egin behar du, eta ikasi egin behar du zer erabili, noiz erabili, norekin erabili eta zelan erabili.

Zentzu horretan, langileak *euskara erabiltzen ikasi* egin behar du.

- **Bide kolektiboa**, erakundeak edo erakundearen atal batek edo batzuk egin behar dutena. Erakundeak ere denbora bat behar du hizkuntzaren trataera antolatzeko, horrek sortuko dituen eragozpenak gaintitzeko, erabakiak hartzeko, hizkuntza bakoitza noiz, nork, norekin eta zelan erabili behar den antolatzeko. Erakundeak ere *euskara erabiltzen ikasi* egin behar du.

Bide hori prozesu bat da. Ez da derrepentean lortzen; hasi ere ez da derrepentean egiten. Apurka-apurka lortzen den zerbait da, batetik eta bestetik eraginez. Eta, prozesu oro bezala, planifikatu egin behar da arrakastaz burutu nahi bada.

Planifikatzeak esan nahi du, lehenik eta behin, jomugak erabakitzea, hau da, zer lortu nahi den zehaztea; bigarrenik, jomugara iristeko bidea aurreikustea: zer egingo den lehenengo eta zergatik (lehentasunak), zein jokaera jarraituko den (estrategia) eta noiz egingo den zer (egutegia). Eta, hirugarrenik, planifikatzeak esan nahi du jarraipena eta ebaluazioa egiteko moduak aurreikustea, adierazle zehatzen arabera.

Maila kolektiboari, erakundeari, dagokion planifikazioa zedarrituta eduki behar da maila pertsonalari ekin ahal izateko. Marko orokorra finkatu gabe, maila txikiagoan egin daitezen planifikazioak (langileen banakakoen mailan, zerbitzu solteen mailan, etab.) ondo taxututa egonda ere, norabide nagusiaren faltan egongo dira eta zailago izango da erakunde osoaren ahaleginarekin koherentzia izatea.

Plan guztietan bezalaxe, garrantzitsua da oinarrizko irizpide batzuk jarraitzea erabilera plana lantzerakoan:

- **Bezero-orientazioa zaindu:** administrazioa moduko egitura hierarkizatuetan ikuspegi desberdinak txertatzea ez da beti erraza gertatzen, baina guztiz komenigarria da **management**-eko kontzeptu baliagarri batzuk kontuan izatea. Dagoeneko, egia da, kanpoko bezeroekiko (=herritaren) ikuspegia gero eta gehiago zaintzen da administrazioaren jardunean; baita hizkuntzaren gaietan ere bai, esate baterako, euskarazko harrera egiteari dagokionez edota herritarren hizkuntza-eskubideei dagokienez.

Ez dago hain zabaldua, berriz, erakunde barruko eragileekiko ikuspegia, esate baterako, bertako langileekikoa. Sarritan, langileei zuzendutako ekintzak eta jarduerak abiatzen dira jakin barik oso ondo benetan zeintzuk diren euren beharrak eta igurikimenak.

Uste dut hor badagoela sakondu beharreko esparru garrantzitsu bat, euskalgintzan, oro har, eta baita, zehazki, administrazioaren normalizazioan ere. Sasoiak eta pertsonak aldatu egiten dira eta garai batean langileak euskarara hurbiltzeko erabilitako formulak, beharbada, zaharkituta daude gaur egun. Horregatik, beharrezkoa da ezagutzea zeintzuk diren gaur egungo langileen beharrak eta nahiak, bestela baliteke-eta erabilera planak okerreko oinarriekin egitea.

- **Helburuen lorgarritasuna zaindu:** erakundeetan helburu handinahiak ezartzea da erabilera planetan sarritan antzematen den ajea. Euskara-zaletasun zintzoarekin baina asmo optimistegiarekin egindako planak izaten dira; horrelako planek, gehienetan, helburura ez iristearen, eta, ondorioz, gauzak gaizki egin izanaren frustrazioa ekartzen dute.

Beraz, helburu errealistak eta lorgarriak planteatzea guztiz funtsezkoa da. Askoz eragingarriagoa, baliagarriagoa eta pozgarriagoa da helburuak lortu izanaren aldarrikapena egitea, ezina justifikatzen ibiltzea baino.

- **Helburuen progresibotasuna zaindu:** helburuak ondo zedarritzea bezain garrantzitsua da planak dirauen bitartean helburuak mailakatuta izatea, errazenetik eta lorgarrietatik hasi eta zailagoetara iritsi arte. Azpi-mailak lortzen joatea pizgarria da aurrera egiteko, eta gauzak ondo egiten ari garela erakusten du.

Horrek, gainera, laguntzen du ikusarazten normalizazioa zerbait lorgarria dela eta horrek berorrek, berez, balioa eta sinesgarritasuna eransten ditu. Aitzitik, ezinak, zailtasunak, arazoak... behin eta berriro agertzeak kalte egiten dio normalizazioaren ahaleginari.

- **Neurriak eta bitartekoak zaindu:** ur handietan sartzeko, itsasontzi handia behar da. Erailera plana egiterakoan ondo antzeman behar da noraino heldu gaitzkeen daukagun itsasontziarekin. Hori funtsezkoa da planifikazioak emaitza arrakastatsuak izan ditzan. Helburuek eskatzen duten ahaleginaren eta eskura dauden bitartekoen erlazioa gaizki kalkulatzaren ondorio izaten da, sarritan, erabilera planen eraginkortasun eskasa.

Egun indarrean dugun araudiak (86/1997 Dekretuak bereziki) pista dezente ematen du aipatu ditudan ezaugarri horien aplikaziorako. III Atalburuan, batez ere 17. eta 18. artikuluetan, helburu mailakatuen zehaztapena egiten da, eremu soziolinguistikoaren eta erakundeko atalen izaeraren araberrako progresibotasunean oinarrituta. Eta, horrekin lotuta, erakunde bakoitzak hainbat esparrutan neurriak hartu beharra ezartzen da.

Alde horretatik begiratuta, esan daiteke 86/1997 Dekretuak erabilera planak bere baitan hartu beharreko edukiak zertzelatuta utzi zituela. Alabaina, Dekretuak ez zituen planifikazioaren ikuspegitik garrantzizkoak diren beste alderdi batzuk aurreikusi, esate baterako, alderdi metodologikoak, erantzukizunen alderdia (lidergoa) edota planen kudeaketarekin eta ebaluazioarekin lotutako alderdiak.

Baina, garaian garaikoak, ez da, segurutik, bidezkoa gaur egungo ikusmoldeekin epaitzea duela hogeit urte eman zen araua. Orduan ia existitu ere egiten ez zena, ezin, bada, arauetan jaso. Alabaina, gaurko ikuspegitik begiratuta, ematen du jada bidezko dela erabilera planak planifikazio-elementuekin eta planifikazioaren kudeaketarekin ere uztartzea.

Bidezkoa ez ezik, beharrezkoa ere bai; hori baita, nire iritziz, datozen urteotan erabilera planen eraginkortasuna handitzen lagunduko digun gako nagusietako bat.

4.2 Erabilera planak egiteko gida-lerro orokorrak

Lau pauta edo gida-lerro nagusi planteatzen ditut. Laurak ere planen gestioarekin lotzen dira, planak aurrera eramateko moduarekin, estrategiarekin.

4.2.1 Euskararen zehar-lerrotasuna (transbertsalitatea)

Euskara eta euskararekin lotutako gaiak erakunde osoarenak dira. Ez dira bakarrik euskara teknikariak edo euskara zerbitzuak. Euskara zehar lerroa da; erakundearen egiteko guztietan eragiten du: bileretan, komunikazioetan, idazkiak egiterakoan, irudian, aginduetan... Egiteko guztietan erabiltzen da hizkuntzaren bat, beraz, egiteko guztietan dagoen osagaia da hizkuntza.

Egiteko guztietan dagoenez, egitekoak burutzen dituzten pertsona/atal/zerbitzu/bulego... bakoitzaren eta guztien baitan dagoen osagaia da, halaber. Hortaz, erakunde osoak eta erakundeko pertsona bakoitzak dauka osagai horren gaineko ardura, nor bere mailan.

Kontzeptu hori zabaldua, onartuta eta bereganatuta izatea funtsezkoa da erabileran aurrera egiteko, guztien baitan bai baitago erabilera, ez bakarrik euskara langai dutenengan (itzultzaile, normalizazio teknikari, etab.). Horrela ulertuta lortu daiteke, eta ez bestela, erabilera planaren eragina erakunde osora heltzea.

Gaur egun, zorionez, gero eta zabalduago dagoen kontzeptua da. Gero eta gehiago, erakunde gainerako plan orokorrekin jokatzeko den modu berean jokatzeko da erabilera planarekin ere, eta, alde horretatik, erakundeak (eta erakundeetako eragileak) dagoeneko ohituago daude euskararen planak konpartitzen.

Halere, ezin da ezkutatu, batzuetan, izkin egiteko tentazioa nagusitzen dela, eta, nahita edo nahi gabe, hizkuntzarekiko erantzukizuna saihesteko joerak oraindik ere erraz ematen direla erakunde (edo erakunde barruko organo) desberdinetan.

Zehar-lerrotasunak beste kontzeptu garrantzitsu batekin du lotura: *lidergoarekin*. Lidergoa, bere zentzurik eta zabalenean ulertuta: bai agintarien lidergoa, bai arduradun teknikoena, baita langileena, eta baita herritarrena euren ere, administrazioen “bezero” diren neurrian.

Zenbat eta liderrago izan eragile horiek guztiak, orduan eta onartuago eta barneratuago egongo da plana guztion delako. Lidergoa asumitzeak ardurak asumitzea dakar, nor bere esparruan eta bere mailan, eta hori urrats handia izango da plana arrakastaz bideratu ahal izateko.

4.2.2 Diseinua eta ebaluazioa lerratuta. Bikain.

Pellokeria dirudien arren, ez da askotan gertatzen planaren diseinua eta planaren ebaluazio lerratuta egotea. Aitzitik, gehienetan, plana alde batetik egiten da eta ebaluazioa beste batetik. Gorpil zoroa da. Ez denez egoki planifikatzen, ezin dagokion ebaluazioa egin; eta ez denez ebaluazio egokirik egiten, ezin ondo planifikatu.

Erakundeetako normalizazio teknikariek sarritan aitortzen dute ebaluazioarena nola edo hala igarotzen duten trantzea izaten dela. Gainera, denbora eta baliabide ugari eskatzen dituen eginkizuna da eta, gainera, emaitzak oso onak ez direla izango sumatzen da, ozen aitortzen ez

bada ere. Horrek guztiak eraginda edo, ebaluazioa askorik garatu ez den alderdia izan da, oro har.

Alabaina, egoera aztertuz gero, ikusten da planak eurak direla, sarritan, ebaluatzen nekezak. Gorago esan dudan bezala, planean helburu garbirik ez bada ezarri eta horiek neurtzeko modurik ere ez bada aurreikusi, nekez egin daiteke horien ebaluaziorik. Pentsatu liteke, bada, arazoa ez dagoela soilik ebaluazioaren zailtasunean eta tamainan, baizik eta alde zurretik egin beharreko lanean.

Aurrera begira, bada, orain arte egon izan den gabezia handi hori gainditu beharra dago. Erabilera planen eraginkortasuna nekez areagotuko da bi alderdiak bereizirik planteatzen badira.

Esan behar da, halere, gaur egun alderdi hori ere apurka-apurka hobetzen ari dela eta herri-administrazioak gero eta gehiago ari direla kontuan hartzen ebaluazioa ere planaren zati bat dela eta, beraz, planarekin batera aurreikusi behar dela.

Horren inguruan hausnarketa orokorra abiatu zen 2013 urtean Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzan, HAKOBA Batzordearen baitan. EAeko udal eta foru administrazioetako hamazortzi normalizazio teknikariz osatutako lan-taldea abiatu zen urte horretan, erabilera planen egitekoari eta, zehazki, ebaluazioaren egitekoaren inguruan. Hilabete batzuetako hausnarketa eta azterketen ondorioz, hainbat ondorio nagusi nabarmendu ziren. Besteak beste, aipagai dugun gako honi dagokionez, lan-taldean nabarmen ondorioztatu zen behar-beharrezkoa dela ebaluazio eredu estandar bat, bateratu bat, erakunde guztientzako baliagarria izango dena, elkarren artean konparaketa egiteko bide emango duena. Nolabait irudikatzearen, “termometro” bakarra behar dela, alegia.

Hausnarketa horretatik berehala ondorioztatu zen egon badagoela ebaluazio estandar baten funtzioa bete dezakeen sistema bat, BIKAIN ziurtagiria hain zuzen ere, eta merezi duela gai hori lantzea ebaluazioaren inguruan dagoen gabeziari irtenbidea eman ahal izateko.

Hausnarketa-hazi hark jarraipena izan du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzan harrezkeroko urteetan eta, horren haritik, hainbat lan abiatu dira. Izan ere, BIKAINen egitura, Erreferentzia Marko Estandarrean (EME) oinarritua, guztiz baliagarria dirudi plana eta ebaluazio ardazteko, biek ala biek egitura eta osagai bertsuen gainean eraikiz.

4.3.3 Kudeaketa aurreratua

Hirugarren gida-lerroak planaren kudeaketarekin dauka zerikusia eta aurreko biak osatuko lituzke. Lan-munduan eta enpresa pribatuen esparruan aspalditik ezagunak diren irizpideak eta kudeaketa-moduak sartzen ari dira administrazio publikoetan ere. Egitura hierarkizatu, mugiezin eta estankoak baztertu eta, gero eta gehiago, funtzionamendu irekiak, malguak, batzordeei eta lan-taldeeii garrantzia emango dietenak ari dira ezartzen baita administrazioetan ere.

Horren ondorioz, planak eta egitasmoak kudeatzeko beste ikuspegi batzuk joan dira irekitzen eta, euskararen kasuan ere, horrek bide ematen du erabilera planak modu gero eta

antolatuagoan kudeatzeko, urte anitzeko plan estrategikoen bitartez eta urtez urteko kudeaketa planen bitartez.

Erakundeak egiten dituen ahalegin guztiak planaren helburuetara bideratuta egon behar dira; horretara lerratuta. Sarritan, ekimen ugari burutzen dira erakundeetan erabilera areagotzeko asmoz. Baina, ekimen ugari egiteak ez du zertan ekarri, berez, erabileraren hazkunderik, eta ekimenok ez badaude ondo koordinatuta eta plangintza orokorrean aurreikusitako helburu jakinekin lerratuta, emaitzak ez dira beharko zuketena bestekoak izango.

Horregatik, etorkizunean garrantzitsua izango da erabilera planak, plan estrategikoen gisan diseinatzeaz gain, kudeaketa sistematiko eta eragingarriaren bitartez eramatea aurrera. Zentzu horretan, etengabeko errebisioa eta hobekuntza (PDCA zikloa) beharrezkoa da planen arrakastarako, eta, horrekin batera, erakundeko organo desberdinen parte-hartzea eta erabakiak hartzeko gune eraginkorrak izatea (Kudeaketa-Batzordeak, Jarraipen-Batzordeak nahiz bestelakoak.).

Kalitatearen ikuspegitik gestionatzen ikastea eta horrekin lotutako metodologiak erabiltzea funtsezkoa izango da aurrera begira. Horrekin lotzen dira, besteak beste, *bikaintasuna* bezalako kontzeptuak. Izan ere, ezin da bikaintasunik erdietsi hizkuntzen planifikazioa eta hizkuntzen kudeaketa barne hartu gabe.

Etorkizunean, bere burua bikaintasunaren eta kalitatearen parametroetan antolatu nahi duen herri-administrazioak ezinbestez hartu beharko luke kontuan hizkuntza ofizialen kudeaketa. Bikaintasuna euskararekin lotzea; hori da gakoa. Euskararik gabe ez dago bikaintasunik. Hori da, nire ustez, zabaldu beharreko mezua.

Jakina, hori guztia oso lotuta dago bereziki gorago aipatu dudana lehen gida-lerroarekin (zeharlerrotasunarekin). Kudeaketa-modu aurreratuen bitartez jardunda, Euskara-Zerbitzuen papera eta funtzioak ere jauzi kualitatibo bat eman behar du: euskararen gaien kudeatzaile-egile-erantzule bakarra izatetik, euskararen gaien koordinatzaile izatera pasatu behar du; hau da, gaien bideratzaile eta irizpide emaile izango da eta planaren jarraipen orokorraren ardura izango du, baina ez da beti izango, adibidez, ekintzak burutzeko ardura zuzena duena, orain sarritan gertatzen den bezala.

4.2.4 Motibazioa, sustapena, inplikazioa

Laugarren gidalerroak sentiberatasunarekin dauka zerikusia. Erabilera planak eta horien kudeaketa profesionalizatzea aurrerapauso handia izango da eta emaitzak utziko ditu erabileraren hazkunderari dagokionez. Baina, ez da begi-bistatik galdu beharko, oraindik ere, hizkuntzaren normalizazioan dihardugula eta horrek, planak plan, pertsonen sentsibilitatea eta inplikazioa eskatuko dituela.

Pentsatzekoa da, adibidez, erabilera planak erakundearen kudeaketa estandarizatu eta sistematikoan sartuta egoteak normaltasuna erantsiko diola erabilerari ere, baina pentsatzekoa

da, halaber, administrazio askotan behintzat euskararen egoerak ahula izaten jarraituko duela eta, hortaz, beharrezkoa izango dela motibazioan eragiten jarraitzea.

Motibazioa alde eta partaide guztiena: erakunde barruko eragileena lehenik eta behin – agintariak zein langileak- eta kanpoko eragileena bigarrenik –herritarrak, elkarteak, taldeak, etab.-.

Niri iritiz, hurrengo plangintzaldietan ere oso kontuan izan beharko den osagaia da, eta horren gabeziak ohartu beharra dagoela iruditzen zait. Esango nuke, azkenaldian, pixkanaka-pixkanaka, motibazioa alde batera geratzen ari dela, dagoeneko gaindituta dauden garaietako eginkizuna bailitzan.

Izan ere, susmoa dut, askotan motibazioa aldarrikapenarekin identifikatzen dela (zapaldua ez izatearen aldarrikapena, ideologiaren aldarrikapena, berdin tratatua izatearen aldarrikapena, etab.) baina motibazioa ez da hori bakarrik. Motibazioa ere bada, adibidez, emaitzak lortzen direla ikustea, aurreikusitako helburuak lortzen direla ikustea, euskararen erabilerak zentzua duela ikustea, herritarren beharrei erantzuten zaiela ikustea, administrazioak euskaraz lan egiten duela ikustea, etab.

Zentzu horretan, aurrerantzean ere izango da zer landu horren inguruan. Aurrera begirako gakoan artean kontuan hartzeko, hiru zutuin nagusi aipatuko nituzke motibazioa lantzeari dagokionez: positibotasuna, dibulgazioa (praktika onak) eta aitorpena edo aintzatespena

- 1.- **Positibotasuna:** administrazioetan, euskararen erabilera balore positiboekin lotu; esate baterako, innobazioarekin, kudeaketa onarekin, teknologiarekin, erraztasunarekin...

Euskara sarriegi lotzen dugu, oraindik ere, arazoekin, gatazkarekin, ezintasunarekin eta prekarietatearekin. Administrazioetako euskara-planen ebaluazioetan gehiago izaten dira eragozpenak eta zailtasunak nabarmentzen dituzten aipamenak lorpenak goratu eta bistaratzen dituztenak baino, eta horrek kutsu negatiboa zabaltzen du, nahi gabe ere. Esango nuke, neurri batean, igurikimen handiegiak -batzuetan neurri zailak- izatearen ondorio dela; espektatibak ondo ez neurtzearen ondorio.

Konformismoan erori gabe baina etengabeko pesimismotik irten beharra dago.

Beste inori baino lehen, euskararen profesionalei, normalizazio teknikariei dagokie hori kontuan izatea. Barruko trapu zaharrak eta gabeziak ezagutu eta jasanda ere, euren ardura da etsipen hori ez transmititzea behar ez den guneetatik haratago. Adibidez, nekez geureganatuko ditugu gure erakundeko langileak euskaraz jarduteko dauden oztopoak predikatzen badihardugu non-nahi; animatu ordez, kikildu egingo ditugu gehienetan. Behar den guneetan (Batzordean, Zuzendaritzan, Komitean...) planteatu eta konpondu beharko dira oztopoak eta gabeziak, baina, orokorrean, euskararen ikuspegitik ez da ona izango euskararen gabeziak erakundean zehar barreiatzea.

Halaber, erabilerari traba, neke edo kalte egiten dioten egoerak eta inguruabarrak konpondu edo gainditu egin behar dira (B. Atxagaren hitzetan, *zaitzaileak saihestu*).

Egitasmo honen azken atalean sakonago landuko ditut horietako batzuk, baina, hemen, bereziki bat aipatu beharra ikusten dut: *egiaztapen azterketetan egoten diren emaitza txarren ehuneko handiak*. Gai horri irtenbideren bat ematea premiazkoa dela deritzot. Azken urteetan ugaritu egin dira euskara gaitasun desberdinak (hizkuntza-eskakizunak direla, Europako Markoaren araberrako mailak direla, etab.) egiaztatzeko deialdiak. Une honetan, adibidez, C1 maila (edo 3.HE) egiaztatu nahi duen herri-langile batek, 6 aukera ere izan ditzake udako deialdietan (maiatz-ekainean) azterketak egiteko.

Alde batetik ikusita, egiaztageria lortzeko aukera ugari izatea positibotzat hartu daiteke, baina, beste aldetik ikusita, suspentsoa suspentsoaren gainean metatzeko bide gogaikarria ere bada. Eta, kontuan hartuta egiaztageria lortzen dutenen ehunekoa baxua izaten dela, bigarren ikuspuntuak askoz pisu handiagoa dauka herri-langileengan motibazioan (motibazio negatiboan) lehen ikuspuntuak baino.

Azterketen emaitza GAI izaten dutenen ehunekoak beti izan dira baxuak, ez da oraingo kontu berria; baina, gaur egun, jada, gizartean gero zalantza gehiago sortzen ari da horren inguruan. Izan ere, sektore batzuen iritziz, azterketen emaitza baxuak euskararen gehiegizko eskakizuna ezartzearen isla dira (*euskara baztergarria da; ikastea lortzen ez dutenak baztertuta geratzen dira; gainera hizkuntza zaila da; zertarako hainbeste ahalegin eta diru...*). Beste batzuen iritziz ere, emaitza txarrak euskararen normalizazioa ondo ez doan seinale dira (*ikasprozesuaren bidean erreta geratzen dira ikasle asko; titulitisa indartzeko baino ez du balio; ez dio ekarpenik egiten erabilerari...*).

Horregatik, nire iritziz, emaitza txarren atakatik irten beharra dago lehenbailehen. Behin eta berriro emaitza baxuak izateak kalte handia egiten dio euskararen normalizazioari; normalizazioari bere osotasunean, ez administrazioari bakarrik, normalizazioaren kontrako iritziak suspertu eta aldekoen nekea areagotu baino ez duelako egiten.

Gaiak ertz eta erpin asko ditu. Egitasmo honetan zehar, behin baino gehiagotan azpimarratu ditut hizkuntza-eskakizunen sistema ezartzeak normalizazioari ekarri dizkion onurak eta horri esker lortu diren aurrerapausoak. Halere, hogeita hamar urteko ibilbidearen ondoren, beharbada, komeni da sistema hobetu eta eraginkorragoa egingo duten bideak jorratzea. Eraginkorragoa, ez azterketen emaitza hobeak lortzeko, baizik eta, batez ere, erabilera areagotzeko.

Zentzu horretan, nire iritziz, aurrera begira, azterketen emaitzak hobetzeko bideak saiatzea baino garrantzitsuagoa eta premiazkoagoa da sakoneko zenbait gai errotik birplanteatzea, bereziki, erabileraren testuinguruan azterketen euren balioarekin eta funtzioarekin zerikusia dutenak, esate baterako: egiaztapen-sistemak egiten al dio ekarpenik erabilerari? Euskara hizkuntza gutxitua dela kontuan izanda, edozein L2

gisa ebaluatzen jarraitu behar al da? Ez al da L1en tratamendua ematera jo behar? Ez al dira bideak ireki behar hautaketa-prozesuak euskaraz burutzeko? Lanpostura sartzea ez al da erabilerarekin uztartu behar? Nola lortu uztarketa hori?...

Alde horretatik begiratuta, beharbada ez da zentzugabea pentsatzea oraingo egiaztapen-sistema gainditu eta beste modu batzuetara jotzea izan litekeela irtenbidea.

Izango dena izango dela, positibotasuna lortzearen helburuarekin lotuta, premiazkoa da horren guztiaren inguruko hausnarketa egitea eta lehenbailehen irtenbideak lantzea. Euskarak emaitza txarren zulotik ihes egin beharra dauka ahalik eta lasterren.

2.- Dibulgazioa: topiko ezaguna da euskaldunok gauza asko eta onak egiten ditugula baina ez dugula geure burua ondo saltzen. Euskararen kontuetan ere esango nuke hala dela, neurri handi batean behintzat. Gai eztabaidatsua izateak badu, agian, zerikusirik horretan: eztabaidarik ez piztea eztabaidak gure kalterako direlako, konfliktorik ez sortzea konfliktoetatik ere galtzaile ateratzeko aukera asko izaten dugulako...

Bata dela bestea dela, kontua da ikusten eta ezagutzen ez diren ahalegin eta etekin oneko jarduera ugari eramaten direla aurrera herri-administrazio desberdinetan. Horrek guztiak, urteetan zehar, jakituria handia ahalbidetu du, bai normalizazio teknikarien aldetik, bai agintarien eta herri-langileen aldetik eta baita herritarren eta bestelako eragileen aldetik ere. Halere, gehienetan, ez dira modu zabalean ezagutuzera ematen; asko jota, publiko mugatua duten jardunaldi espezializatuetan erakusten dira, edo normalizazio lanetan diharduten eragileen arteko bilkura eta hartu-emanetan.

Aldiz, hori guztia zabaltzea ere normalizazioa egitea dela esango nuke. Hizkuntzaren inguruko polemika eta eztabaida publikoetatik harantzago, beharrezkoa da euskararen garapenean burutzen diren esperientzia arrakastatsuak, praktika onak eta emaitza positiboa duten jarduerak dibulgatu, zabaldu eta ezagutaraztea.

Ez dago inobaziorik dibulgaziorik gabe. Biak lotuta doaz. Aurreko puntuan azaldu den positibotasuna mantentzearen ikuspuntuarekin batera, normalizazioaren inguruko lorpenak jakinarazi egin behar dira.

Maila askotan egin daiteke hori, erakunde mailatik hasi eta zabalkunde orokorra emateraino. Baina herri-administrazioetako euskaren inguruko jarduna espezialisten eremu txikitik atera (itzultzaileak, normalizazio teknikariak, udal euskaltegi-tako irakasleak...) eta, zeharkako gaia den neurrian, gizarteko eremu guztietako jendeari iristea garrantzitsua da nire ustez, gizarte osoan normalizat hartzen lagunduko duelako herri-administrazioetan egiten den ahalegina. Ez da ahaztu behar herri-administrazioen eragina, gutxi-asko, gizarte osora heltzen dela.

3.- Aintzatespena: motibazioaren zutoin handienetako bat da. Gero eta gehiago lantzen eta zaintzen den esparrua da, oro har. Halere, herri-administrazioen kasuan, uste dut hobetzeko tarte esanguratsua dagoela oraindik ere, bereziki erabileran aurrerapausoak ematen dituztenei dagokionez. BIKAIN Ziurtagiria horren adierazgarri garrantzitsu bat, noski, EAE mailan ematen dena eta indartzen jarraitu beharrekoa, baina, maila lokalagoan ere, ahaleginak saritzeko eta aitortzeko bideak jorratzea ere komenigarria izango litzateke.

Zentzu horretan, beste aitorpen modu batzuk zabaltzea ere komeni da, adibidez, erakunde bakoitzaren barruan aurrerapausoak eman dituzten atalei, zerbitzuei, guneei, bulegoei, langileei edo langile-taldee, etab. errekonozimendua egitea.

Garrantzitsua da alderdi horri behar adinako arreta eskaintzea. Lanpostuan euskara erabiltzea, gorago adierazi dudana bezala, ez da egun batetik bestera lortzen den helburua; prozesu bat da eta ahalegina eskatzen du. Gainera, nahiz eta ez litzatekeen horrela izan behar, lanean euskara erabiltzeak ahalegina eskatzeaz gain, sarritan lan gehiago egitea ere eskatzen du; beraz, ahalegina ahaleginaren gainean pilatzen da. Eta, halere, langile askok gogo onez ekiten dio.

Ahalegin hori saritu eta aitortu beharra dago, sinbolikoki bada ere; alde batetik pausoa eman duten langileei eta zerbitzuei zor zaien begiruneagatik, eta, beste aldetik, gainerako langile eta zerbitzuentzako motibagarri eta kitzikagarri izan dadin.

Erakutsi behar da euskaraz lan egiteak eskatzen duen ahaleginak merezi duela, eta, halaber, erakutsi behar da ahalegina aintzat hartzen dela.

Izan ere, aintzatespenak inplikazioa eskatzen du, eta, era berean, aintzatespenak inplikazioa hedatu egiten du: aitorpengileen (agintarien, arduradunen...) inplikaziorik gabeko aintzatespena ez da sinesgarria; faltsua eta antzerki hutsa da. Aldiz, ondo egindako aintzatespenak eragin biderkatzailea dauka inguruko beste pertsonengan eta eragileengan, positibotasuna eta benetakotasuna zabaltzen baitu. Zentzu horretan, garrantzitsua da zaintzea aitorpena nork egiten duen.

4.3. Argitu beharko diren zenbait kontzeptu

Honenbestez, egitasmo honen azken atalari helduko diot.

Egitasmo honetan erabilera planen ibilbide historikoa birpasatu da. Zentzu horretan, hainbatetan adierazi dudana legez, plangintzaldiz plangintzaldi planak zabaltzen, osatzen eta osoagotzen joan dira. Baina, gainera, erantsi beharko nuke planak indarrean egon diren arauen arabera egiteaz gain, unean-unean izan diren irizpide eta normalizazioari buruzko iritzi-joera desberdinak kontuan hartuta ere egin direla.

Izan ere, erabilera planen bilakaeraren oinarrian beti egon da gogoeta, zentzu batean edo bestean. Planak hobeto egiteko gogoia, eraginkorrakoak izateko beharra, mugak eta eragozpenak gainditzeko borondatea... Etengabeko hausnarketa egon da urte guzti hauetan zehar eta, horrekin batera, noski, etengabeko teorizazioa eta kontzeptualizazioa ere bai, maila askotan: alderdi juridikoan, hizkuntzaren irakaskuntzan, alderdi metodologikoetan, soziolinguistikan, administrazioaren antolamenduan eta kudeaketan... Baita gizartearen diskurtsoetan, gizarte-eragileen posizionamendu politikoetan, hizkuntzei begiratzeko moduetan, euskara onartzeko/arbuiatzeko joeretan, etab.

Hala, ikuspuntu eta iritzi desberdinen bilakaerak unean uneko irtenbideak ahalbidetu ditu eta, horien guztien ondorioz, gaur egungo egoeraraino iritsi gara, ondo edo gaizki.

Zer esanik ez, gaur egungo gogoeta eta ikusmolde askok ez dute zerikusirik duela hogeita hamar edo berrogei urte geneuzkanekin. Lehenagoko garaietan ez ziren gaur egungo eztabaida batzuk suertatu ere egiten, eta, aldiz, gaur egun, gainditutzat daude orduko beste batzuk. Apurka-apurka, bide batzuk ireki ahala beste batzuk zaharkituta geratu dira, aurrera egiteko ahaleginetan.

Aurrera egiteari dagokienez, egitasmo honetan jaso ditut dagoeneko nire ustez administrazioaren normalizazioan garrantzizkoak diren gako zenbait. Baina, kontzeptualizazioaz ari garelarik, badira beste lauzpabost gako -edo korapilo- aurrera egin ahal izateko argitzea -edo askatzea- komeniko liritekeenak.

Ez da egitasmo honen xedea gako hauetan sakontzea, beraz, aurkeztu baino ez ditut egingo. Gainera, elkarrekin oso lotuta daude nire ustez, eta batentzako esandakoak besteentzako ere balio du, neurri handi batean.

Ez dago esan beharrik herri-administrazioetan hizkuntzen (euskararen eta gaztelaniaren) normalizazioan eragingo duten gako gehiago ere izango dela. Baina, egitasmo honi dagokionez eta gaur egungo egoerari dagokionez, honako hauei garrantzizkoak deritzet:

- Adostasuna vs. hierarkia
- Langileen eskubideak vs. betebeharrak
- Jardun elebiduna vs. jardun elebakarra
- Itzulpenaren papera
- Euskararen normalizazioa deritzona zer den

4.3.1 Adostasuna vs. hierarkia

Beti esan izan da herri-administrazioak ente hierarkizatuak direla; gizarteko hierarkizatuenetakoak, agian. Hierarkizazio hori erabili izan da sarritan administrazioen zenbait

ezaugarri zuritzeko. Beste batzuetan, zaindu beharreko izaeratzat ere jo izan da hierarkizazioa, erantzukizunen identifikagarri eta funtzionamendu egokiaren seinale.

Hizkuntzei dagokionez, ordea, esango nuke hierarkiaren kontuak beste aldagai batzuk ere izan dituela. Hala, ez da berdin jokatu gaztelaniari buruz aritzean edo euskarari buruz aritzean. Esan liteke, oro har, euskararen aldeko sustapenak gutxitan izan duela hierarkiaren pisurik; aldiz, euskararen *ez-sustapenak*¹¹ arazorik barik aplikatu izan du erakunde barneko hierarkia, kontzienteki nahiz ez guztiz kontziente.

Esan nahi baita: oho har, euskararen aldeko sustapenean, berdin herri-administrazioetan zein gizarteko beste esparru batzuetan, sarritan inbokatu da langileen, pertsonen, eragile desberdinen... adostasuna. Adostasunik gabe ez dago pausorik ematerik, gaitzespena eta errefusa eragingo dituelako.

Gaztelaniaren erabileran, ordea, inoiz gutxitan planteatzen da halako adostasunen beharrik; egin egiten da eta kitto; ez da baimenik eskatzen, eta arazoa euskaraz egin nahi duenarena da. Hierarkian goian daudenen jokamoldeak dira aplikatzen direnak (sailburuak, sailburuordeak, zuzendariak, zerbitzuetako arduradunak, etab.) eta hor ez dago zertan alde zurririk adostasunik lortu. Konfliktorik sortuz gero ere erraz ezartzen da hierarkiaren printzipioa.

Hori begi bistakoa da administrazioko eguneroko jardunean. Euskara laneko hizkuntza ohikoa den gune jakin eta mugatuetan izan ezik, gainerako tokietan lana euskaraz egiteko aukerak beti daude “adostasuna”, “kalterik ez eragitea” eta antzeko irizpideen menpe.

Hierarkiaren printzipioa nekezago aplikatzen da euskararen kasuan, gaztelaniaren kasuan baino, eta hori, jakina, ez da lagungarria euskararen sustapenean. Egoera hori gainditu beharra dago aurrera egin ahal izateko. Gutxienez, bi hizkuntzekin berdin jokatzeari buruz beharrik litzateke, alegia, bietan aplikatuz hierarkiaren printzipioa edo, bestela, bietan aplikatuz adostasunaren printzipioa.

Noski, hain zuzen ere eta besteak beste, hierarkiaren laguntzarik ez daukalako dago bietako bat gutxitasun egoeran, baina, egin kontu, hierarkiaren laguntza edukitzeko moduan dauden administrazioetan ere –adibidez, agintari politikoak edo arduradunak euskaltzaleak direlako– beti ez dela laguntza hori modu argian eta esplizituan ematen. Ohiturak, inertziak, uste okerrak, etab. eragin handia dute horretan guztian oraindik ere, eta ematen du horren inguruko pedagogia egiten jarraitu beharrik dela aurrerantzean ere.

Esate baterako, euskara lan-hizkuntza gisa erabiltzeko pausoak emateko bidean, sarritan faltan bota izan da arduradunen agintea; ez maila goreneko erabakiak edo transzedentzia izugarria duten erabakiak hartzeko baizik eta eguneroko lanarekin zerikusia duten erabakiak, “errutinako” erabaki hartzeko, administrazioaren eguneroko jardunean arruntak izan beharrik liratekeenak hartzeko, esate baterako, bilera baten aurrean zein hizkuntza erabiliko den ezartzea, edo agiri jakin bat gaztelaniaz ez baizik eta euskaraz egin behar dela agintzea, edo prozedura jakin bateko

¹¹ euskararen *aurkako sustapena* formak esanahi orokorregia eta negatiboegia izan dezakeenez, euskararen *ez-sustapena* esango dugu.

agiriak, denak edo batzuk, gaztelaniaz ez baizik eta euskaraz, edo ele bietan, egon behar direla agintzea.

Egia da, bestalde, administrazioaren modernizazio eta kalitatezko kudeaketa-sistemak ezartzen diren neurrian, hierarkia hutsean oinarritutako funtzionamenduak gero eta gaintuago egongo direla (hala espero beharko litzateke, bederen) eta, horrenbestez, hizkuntzen gaietan ez ezik, gainerako beste gaietan ere adostasunak eta inplikazioak lortzeko moduak nagusitzen joango direla. Horrek guztiak, administrazioen egitekoari buruzko hausnarketa egitea dakar eta, testuinguru horretan, espero izatekoa da hizkuntzen tratamenduari ere irtenbide orekatuagoak eta euskararentzako onuragarriagoak ekarriko dituela.

Edozelan ere, euskararen sustapenerako, badirudi beharrezkoa dela hierarkiaren pisua orain artekoa baino handiagoa izatea, eta garrantzitsua izango da horren inguruko gogoeta egitea.

Testuinguru horretan, aurrera begira hausnartu eta sakondu beharreko esparruak izango direla iruditzen zait adibidez, agintarien eta arduradunen lidergoa administrazioen hizkuntzen erabilerari dagokienez, horretan izan behar funtzioa eta administrazioaren modernizazioaren garapenean jokatu beharreko papera.

4.3.2 Langileen eskubideak vs. betebeharrak

Aurreko 4.3.1 puntuan aipatutakoaren beste alderdi bat da honako hau, adostasunaren kontuarekin bai baitu zerikusia.

Inplikazio desberdinak izan ditzake gai horrek, baina bat aipatuko dut hemen, lehenbailehen argitzea guztiz premiazkoa dela uste baitut: alderdi juridikotik argitu beharra dago noraino heltzen diren langileen eskubideak hizkuntza baten edo bestearen erabilera ezartzean.

Alde batetik, esan izan da herri-administrazioek ez dutela hizkuntza-eskubiderik; eskubideak herritarrarenak direla, ez administrazioarenak; aitzitik, administrazioak hizkuntza-betebeharrak dauzka, hain juxtu herritarren eskubideak bermatzeko beharretik eratortzen direnak; baina, berez, administrazioak ez dauka hizkuntza-eskubiderik.

Arrazonamendu horren haritik, herri-langileek ere ez dute, berez, hizkuntza-eskubiderik. Langileek dituzten hizkuntza-eskubideak dira, beti ere, bere administrazioaren zerbitzu hartzaile izatearen ondorioz dauzkatena (adibide argigarri batzuk aipatzearen: bere tramite pertsonalak euskaraz egitekoa, nomina euskaraz jasotzekoa, etab.) baina, lanari eta laneko hizkuntzari dagokionez, erakundeak ezarritako irizpideak jarraitu behar ditu eta ezin die horiei uko egin hizkuntza bata edo bestea erabiltzeko eskubide pertsonala argudiatuta.

Beste aldetik, berriz, bada kontrako iritzirik ere defendatzen duenik eta langileek ere euskara erabiltzeko eskubidea dutela argudiatzen dutenik. Sarritan langile eta elkarte nahiz sindikatu euskaltzaleen aldarrikapena izaten da hori, hain zuzen lanean euskara erabiltzeko eskubidea defendatuz. Gaztelaniaren kasuan, normala denez, ez da gaztelania erabiltzearen aldeko aldarrikapen nabarmenik ezagutu; bai ordea, euskara ez erabiltzekorik (batzuetan disimulatuta

eta beste batzuetan agerian). Noski, batzuen eta besteen artean, hau da, euskara erabiltzearen aldarrikapena egiten dutenen eta euskara ez erabiltzeko jarrera hartzen dutenen artean, bigarren horiek ateratzen dira irabazle, askoz errazagoa baita, oro har, euskara erabili gabe jardutea kontrakoa baino.

Langileek hizkuntza-eskubiderik ez daukatela onartzeak esan nahi du langileek erakundearen irizpide eta aginduetara lerratu beharra daukatela. Alde horretatik begiratuta, bidezkoa dela dirudi. Laneko beste gai guztietan gertatzen den bezala, honetan ere erakundearen erabakiak gailentzen dira langile norbanakoaren erabakiaren gainetik. Gainera, aurreko 4.3.1 puntuan hierarkiaren printzipioa dela-eta esandakoekin koherentea izango litzateke.

Alabaina, bigarren ikuspuntuak, hau da, langileek ere euren hizkuntza-eskubideak badituztela aldarrikatzen duenak, bestelako oinarriak hartzen ditu kontuan eta, horren baitan, bestelako ondorioak ere ekar ditzake.

Jakina, planteamendu horrek balio lezake langile euskaldunek euskaraz egitearen aldeko joerak areagotzeko eta, alde horretatik, langile euskaldunak aktibatzeke eta euskararen presentzia hedatzeko lagungarria izan daiteke. Baina, aho biko ezpata da zalantzarik gabe: langile euskaldunak bezalaxe, langile erdaldunak ere aldarrikapen berbera egin baitezake, adibidez, euskaraz lan egiteari uko eginez. Eta, bide horretatik, euskararen normalizaziorako konponbiderik ez duten egoera zailtara joan gaitezke.

Gaiak badu mamirik eta bada zer aztertu. Esan bezala, alderdi juridikoa nabarmena da gai honetan, baina, horrekin batera, baita soziologikoa eta politikoa ere. Edozelan ere, normalizazioaren ikuspegitik gai hau premiaz argitu behar da. Administrazioetan euskara lan-hizkuntza gisa hedatzeko gero eta saiakera eta ahalegin gehiago egiten ari diren une honetan, langile norbanakoaren eskubideak noraino heltzen diren argitu eta erabakita utzi beharra dago, han-hemen hartzen diren neurrien eta abiatzen diren ekimenen segurtasun juridikoa bermatuta izateko ez ezik, eztabaida antzuetan indarrik ez galtzeko ere bai.

4.3.3 Jardun elebiduna vs.jardun elebakarra

Finkatu beharreko hirugarren kontzeptua hizkuntzaren erabilera zehatz eta praktikoari dagokio, eta hauek bezalako galderei erantzutera dator, adibidez: euskara lan-hizkuntza bihurtzea esaten denean, zer esan nahi da zehazki?; administrazio elebiduna esaten denean, zer esan nahi da zehazki?; administrazioetan euskararen erabilera areagotzea esaten denean, zer esan nahi da zehazki?; administrazioan euskara erabiltzea esaten denean, zehazki zer esan nahi da?.

Euskararen normalizazioan pausoak ematen goazen neurriak, eta, batez ere, euskara lan-hizkuntza gisa gero eta erabiliagoa den neurrian, egoera berriak eta zalantza, kezka, arazo... berriak sortzen zaizkigu. Orain artekoan, oro har, bestelako galderak eta bestelako arazoak izan ditugu aurrean, eta nahiko lan izan dugu horiei erantzuten. Esate baterako, azken urteotan, eztabaida eta lanketa luzeen ondoren, pausu esanguratsuak eman dira hizkuntza bakarra erabiltzearen balioaren eta zilegitasunaren inguruan eta lege mailako arau batean (Udal Legea deritzon) jasota uztea lortu da euskararen erabateko ofizialtasuna hizkuntza bakarra denean

ere administrazioen arteko harremanetan. Oso zabaldua egon diren uste okerrak gainditu eta urteetan istilu iturri izan den gaia behingoz ebazteko balio izan du.

Baina, esan bezala, urratsak eman ahala, beste gai batzuk hartzen dute garrantzia, eta, nire iritziz, une honetan *jardun elebiduna vs. jardun elebakarra* da argitu beharreko horietako bat.

Esan bezala, udal Legea deritzonak argitu du, bada, euskara hutsezko komunikazioa guztiz zilegi dela administrazioen arteko jardunean. Beraz, konponduta geratu da euskara hutsezko jarduna bultzatzen duten erakundeek izan zezaketen istilua. Alabaina, aitortu behar da euskara hutsezko jarduna oraindik ere administrazio gutxi (eta txiki) batzuetara mugatzen dela. Erakunde gehienetan ez da hizkuntza bakarreko jarduerarik; eta, baldin bada, nahiko mugatua da. Askotan, euskarazko jarduna ez da ulertzen gaztelaniarekin batera ez bada, eta, horren ondorioz dator, adibidez, idazki asko eta asko ele bietan egitea modu nahiko indiskriminatuan. Hori baita administrazio elebiduna edukitzearen inguruan zabaldua dagoen kontzeptua.

Hortaz, aurrera egin ahal izateko, ideia horren inguruan ere gogoeta egin eta denontzako baliagarria izango diren irizpideak izatea komeni da.

Gaur egun, gaindituta dauzkagu garai batean euskaraz lan egiteko izaten ziren hainbat eragozpen eta, gutxi-asko, administrazioak neurriak hartzen ari dira erabilera sendotzeko. Horrek funtzionamendu arazo konkrituak eta praktikoak sortzen ditu egunerokoan eta horiek gainditzeko laguntzeko beharrezkoa da irizpide zehatzak edukitzea.

Ematen du, etorkizunean, zentzuzkoagoa izango dela elebitasun orokor indiskriminatua gainditu eta, horren ordez, kasuan-kasuko hizkuntza erabiltzea hobestea.

Horren arabera, adibidez, administrazioek erabaki egin beharko lukete zer egingo duten hizkuntza bakoitzean: zer euskaraz, zer ele bietan eta zer, hala badagokio, gaztelaniaz; bai ahozko jardunean (aurkezpenak, bilerak, harrera, etab.), bai idatzizkoan.

Horrekin batera, erabaki beharko lukete, halaber, nola bideratuko dituzten jardunak eta zein baliabiderek, kontuan izanda hizkuntza bateko edo bietako hartzaileak, hornitzaileak, bezeroak, etab. izango dituztela.

Pertsonal alorrean ere eragingo du, eta zerbitzu, bulego... bakoitzean nork zer eta zein hizkuntzatan egingo duen aurreikusita edukitzea eskatuko du.

Bistan denez, erakundearen kudeaketa-ereduari eragiten dio horrek guztiak. Horra, berriro ere 4.3.3 puntuan azaldutako gidalerroaren garrantzia.

Edozelan ere, beharrezkoa izango da, honetan ere, zabalkunde eta pedagogia lana egitea, uste okerrak apurtu eta normalizazioaren alde egon daitezkeen guztien iritzia norabide berean ipintzeko.

4.3.4 Itzulpenaren papera

Etorkizunean itzulpenaren funtzioa zein izango den jorratzea ere behar-beharrezkoa izango da. Alegia, planteatu beharko da erabileraren eraginkortasuna lortzeko bidean, zein den itzulpenak beteko duen papera.

Ezaguna da orain artekoan itzulpenak bete duela, hein handi batean, euskara administrazioan txertatzearen funtzioa. Neurri handi batean, itzulpenari esker lortzen da, orain ere, herritarrekiko hartu-emanetan herritarren hizkuntza-eskubideak betetzea; eta, bestetik, bestelako hartu-emanetan ere, itzulpen bidezkoak dira idazki asko eta askotan egoten den euskarazko testua.

Zentzu horretan, beraz, funtzio garrantzitsua burutu du itzulpenak administrazioan. Zer esanik ez, halaber, corpusaren normalizazioan eta estandarizazioan ere.

Alabaina, euskararen erabilera areagotzea ez da itzulpenen eskutik etorriko, bakarrik. Erabilera haziko da, batez ere, euskara lan-hizkuntza bihurtzen bada eta eguneroko lanean sortze-hizkuntza baldin bada. Eta, ondo bidean, aurreikusi beharko da euskaraz gero eta sortze-lan handiagoa ezagutuko dugula eta, berriz, euskarara itzultzeko jarduna gero eta murriztagoa izango dela.

Ekuzio hori epe motzean gauzatuko dela pentsatzea ere ez da errealia nire ustez, aurrerantzean ere handiak izango baitira itzulpen premiak, baina, hori horrela izanda ere, bi eginkizunak – euskarazko sorkuntza eta itzulpena- uztartu egin behar dira eta biak norabide berean jarri, helburua delarik, beti ere, erabileran eraginkortasunik handiena lortzea.

Gaur egun, administrazioetan oro har, euskararen presentziaren pisurik handiena itzulpenak darama. Administrazio gehienetan daude itzultzaileak, eta gehienetan, euskaraz eman beharreko testu gehienak itzultzera bidaltzen dira. Gehienetan, halaber, bertako itzultzaileak ez dira nahikoak izaten eskaera guztiari erantzuteko eta kanpora jo behar izaten da itzultzera.

Hainbat erakundetan, gainera, euskarazko produkzioaren gainbegirale ere izaten dira itzultzaileak, erakundean euskaraz ematen dena euskara onean ematen dela bermatzeko, eta, hartara, araututa dute euskarara itzuli beharreko testu oro itzultzaileek itzulia izan behar dela.

Itzulpena jotzea eroso da dudarik gabe, baina, aldi berean, kostu ekonomiko handia eragin dezake. Euskaraz sortzea, berriz, ez da hain eroso, baina kostu ekonomikoak ez du zertan izan hain handia. Erakundeetan ohikoa eta ohiturazkoa da itzultzaileen esku uztea euskarazko testu ia gehienak, langileak eurak sortzen ibili barik. Hor bada, beraz, ohitura karga esanguratsu bat.

Hortaz, administrazioetan euskararen trafikoa nola antolatu da aurrean daukagun gako esanguratsu bat. Bi norabidetako trafikoa: itzultzaileengana jotzeko autobide zabalean dagoen guztia batetik, eta euskaraz sortzeko bide aldapatsuan dagoen apurra, bestetik.

Dudarik gabe, bien arteko hartu-emana finkatu beharra dago. Horretan, badira zenbait neurri, tentagarriak diren arren, eurak bakarrik erabilerari ekarpenik egiten ez diotenak, esate baterako, debekatzea testu errazak edota errepikakorrak itzultzera bidaltzea. Horrelako neurriek, sarritan,

testuak gaztelaniaz bakarrik uztea ekartzen dute, eta, azkenean, ez diote askorik laguntzen erabilerari.

Neurri puntualez haratago, gai honek planteamendu osoa eskatzen duelakoan nago, benetan eragingarri izan nahi badugu. Nire uste apalean, besteak beste irizpide hauei jarraitzea komeniko litzateke:

- Lan-prozeduretan aurreikusita egon behar da zein kasutan itzuli, zer itzuli eta nork itzuli. 4.3.3 puntuan euskarazko jarduna bultzatzeari buruz esandakoen ildo beretik, itzulpenaren kasuan ere erakundearen kudeaketaren barruan aurreikusita egon behar da itzulpenaren tratamendua. Horren baitan hartu ahal izango dira neurri batzuk edo besteak.
- Itzulpenak ez du erabileraren oztopo izan behar inoiz; ez itzultzeko trabak jarritz, ez langileek egindako testuak fiskalizatuz. Itzulpenak normalizazioaren baitan hartutako erabakien menpe egon behar du, ez alderantziz.
- Euskarazko produkzioa blindatu: zerbitzu, atal... batek egindako euskarazko testu baten itzulpena behar baldin bada, testua jaso duen organoaren ardura izango da itzulpena egitea. Hau da, ez ipini ez oztoporik ez gain-kargarik euskara lan-hizkuntza izan dadin (*zailtzaileak* kendu, honetan ere).
- Testua euskarara itzuli behar izanez gero, egoera desberdinak egon daitezke eta kasuan-kasuan aztertu beharko da zelan jokatu, adibidez:
 - Itzultzaileek itzultzea.
 - Itzulpena norberak egitea.
 - Itzulpenak zerbitzuan, atalean... egitea.
 - Gaztelaniazko testua egindakoan norberak euskarazko bertsioa egitea.

4.3.5 Euskararen normalizazioa deritzona zer den

Argitzea eta finkatzea komeni den beste kontzeptu garrantzitsu bat da honako hau. Aurrekoen aldean, kontzeptu orokorragoa da, eta horregatik utzi dut azkenerako. Irtenbiderik zailena ere beroni aurreikusten baitiot. Txosten honen 1.2 puntuan aurreratu dut, neurri handi batean, honen inguruko gogoeta 10/1982 Euskararen Legearen testuinguruan.

Nonahi erabilia den terminoa da, baina galdetu beharko genuke ea denok gauza bera ulertzen ote dugun euskararen normalizazioa eta, zehazki, euskararen normalizazioa administrazioan, esaten dugunean. Ez bakarrik jarrera politiko eta kultural desberdinak dauzkatenen artean - horietan begi bistakoa da ezetz-; baita antzeko eremuetan dihardutenen artean ere. Baita, esate baterako, hizkuntza-normalizazioan dihardugun teknikarien eta adituen artean ere.

Litekeena da, dena den, definizio bateratu bat lortzea posible ez izatea, izan ere ikuspuntu desberdinak egotea, berez, aberasgarria eta gizartea anitza den erakusle dira. Baina, hori gorabehera, nire usterako, gaur egun jada komeni da gutxieneko batzuk finkatuta edukitzea, maila teknikoan bada ere.

Bestela esanda, normalizazioan aurrera egin ahal izateko, ez da lagungarria kontzeptu basiko eta oinarrizkoenaren inguruan gutxieneko adostasunik gabe ibiltzea. Autonomia Estatutua onartu eta, horrenbestez, azken hamarkadetako gizarte-antolamendua abiatu zela ia berrogei urte direnean, ematen du arrazoizkoa dela denok jakitea zertaz ari garen.

Izan ere, zehazki zer ulertzen da, adibidez, *euskararen normalizazioa lortu, euskararen normalizazioan aurrerapausoak eman*, eta antzeko beste hainbat esaten direnean? Denok normalizazioaren egoera bera(k) irudikatzen d(it)ugu?.

Eman ohi diren definizioetara joz gero, idatzizko testuetan eta idatzietatik kanpo daudenak bereizi beharko lirateke. Idatzizko testuetan, gehienetan politikoki zuzenak diren egoerak irudikatzen dira; esaterako, idatzi izan da normalizazioaren helburua dela euskara *hizkuntza normala izatea administrazioan*, edo *euskara gaztelania bezala erabiltzea administrazioan*, edo *euskara berezko eta ohiko hizkuntza izatea...* Apur bat haratago joanez, *euskara administrazioko zerbitzu- eta lan-hizkuntza izatea...*

Denak ere, orokorregiak dira, eta ez dute benetako zehaztasunik ematen praktikan normalizazioa zer izatea nahi denaren gainean. Zer da, zehazki, “normala”, “ohikoa”, etab. izatea?. Egunerokoan, zertan islatzen da “normala”, “ohikoa” izatea?. Adibidez, horrek zer esan nahi du, gaztelaniaren parean erabili behar dela beti euskara? Dena euskaraz ere egin behar dela?

Nire ustez, galdera horiei ez diegu erantzun argirik eta zuzenik eman oraindik. Ez dugu irudi kolektiborik osatu hizkuntzaren normalizazioa izan nahi denari buruz; gizartean ez da hizkuntza-normalizazioa irudikatu, eta hori gabezia handia da.

Idatzizko testuetan ez bezala, ahozko azalpenetan, elkarrizketetan, batzarretan, etab. aipatzen direnak askoz bariatuagoak izaten dira baina baita muturrekoagoak ere. Irudikatzen diren egoerak, helburuak, definizioak, zehatzagoak dira, eta, era berean, handiagoak dira desadostasunak eta aldeak. Jakina, desadostasunak zaildu egiten dute normalizazioaren **irudi kolektikoa** osatzen.

Ematen du, hortaz, badagoela lan bat hori guztia argitzen eta finkatzen. Lehenagoko garaietan izan diren hainbat egoera gaindituta ditugun honetan, euskararen jomugak zertzelatuta izatea beharrezkoa dela uste dut, denok ere jakin dezagun hemendik aurrerako urratsak zein norabidetan eta zein neurritan ematea komeni den.

Horrek guztiak, maila kontzeptualean ez ezik maila praktikoan ere badu eraginik. Adibidez, VI. Plangintzaldiko erabilera planak taxutzeko ateetan gauden honetan, oso komenigarria da denok ere normalizazioa deitzen den horren inguruak argi izatea, bai agintariek, bai langileek, bai normalizazio lanetan dihardugun teknikariok:

- administrazioetan euskararen normalizazioa zer den -eta zer ez den-.
- administrazioetan euskararen normalizazioa lortzeko nondik jo behar den –eta nondik ez den jo behar-.
- administrazioetan euskararen normalizazioa zer den jakinda, zelako aldaketak eskatuko dituen eta zelako ondorioak izango dituen.
- administrazioetan euskararen normalizazioa zer den jakinda, administrazioa non dagoen eta normalizaziora iristeko zenbat falta zaion.

Pellokeria irudi lezake horrek guztiak, baina, nire iritzirako, debate horri ez zaio ganoraz heldu oraindik ere; ez maila orokorrean, ez, zehazki, administrazioaren esparruan. Gizarte mailan egin beharreko hausnarketa da, jakina, baina baita administrazio bakoitzaren baitan ere. Erakundeetako partaideek garbi izan behar dute zein den euren etxearen hizkuntza-normalizazioaren azken irudia, eta, arestian esan bezala, baita zeintzuk diren horra heltzeko bideak eta horren ondorioak.

Baina, VI. Plangintzalditik haratago ere, esango nuke, management-eko kontzeptuak erabilia, hurrengo urteetarako normalizazioaren *Misioa* eta *Bisioa* adostea eta finkatzea falta zaigula. Hau da, falta zaigula ezartzea Euskalgintzak, oro har, nora jo nahi duen, etorkizunean zer izan nahi duen eta non egon nahi duen. Eta, Euskalgintzaren esparru berezitua gaindituz, esango nuke, halaber, gizarte osoak jakin behar duela zein den normalizazioaren horizontea eta nolakoa izango litzatekeen *hizkuntza-egoera normalizatua* leukakeen etorkizuneko euskal gizartea.

5.- Amaierakoa

Horrenbestez, aztertutzat ematen ditut egitasmo honen bitartez jorratu nahi nituen alderdiak. Herri-administrazioetako erabilera planen jatorriaren historia laburtzen saiatu naiz, eta horrekin batera, nire esperientziatik abiatuta, etorkizunean funtsezkoak izango diren klabe batzuk arrazoitzen ere saiatu naiz.

Noski, sakontasun handiagoz, eta baita metodologia egokiagoz ere, landu daitezke egitasmo honetan jorratutakoak. Txostenean zehar aipatu dudan bezala, ehunka dira herri-administrazioetan egin izan diren erabilera planak, eta horrek guztiak material ugari eskaintzen du azterketa zuzenagoak eta zehatzagoak egiteko.

6.- Bibliografia

Araua

- 3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Autonomia Estatutua onartzen duena. BOE: 1979-12-22; 306 zkia.
- 10/1982 Oinarrizko Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilera Arauzkotzekoa. EHAA: 1982-12-15; 160 zkia.
- 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa. EHAA: 1989-7-28; 144 zkia.
- 250/1986 Dekretua, azaroaren 24koa, Euskal Herriko Autonomi Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera eta normalizazioa arautuz. EHAA: 1986-11-29; 236 zkia.
- 224/1989 Dekretua, urriaren 17koa, Euskal Herriko Autonomi Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera eta normalizazioa arautzen duena. EHAA: 1989-10-27; 203 zkia.
- 264/1990 Dekretua, urriaren 9koa, lanpostuei izendatutako hizkuntza-eskakizunen derrigortasuna zehazteko irizpideak finkatzen dituena. EHHA: 199-10-26; 215 zkia.
- 238/1993 Dekretua, abuztuaren 3koa, euskal administrazio publikoetan euskararen erabilpenaren normalkuntzarako prozesua ezartzeko zenbait neurri ezartzen dituena. EHAA: 1993-8-31; 165 zkia.
- 89/1994 DEKRETUA, otsailaren 15ekoa, euskararen erabilera Euskal Administrazio Publikoetan normalizatzeko prozesua aplikatzeko hainbat neurri ematen dituen dekretua aldatzen duela. EHA: 1989-3-7; 45 zkia.
- 517/1995 Dekretua, abenduaren 19koa, Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan hizkuntza normalizazio-prozesuaren jarraipenerako behin-behineko neurri batzuk arautzen dituena, EHAA: 1995-12-28; 246 zKia.
- 86/1997 DEKRETUA, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duena. EHHA: 1997-4-17; 72 zkia.

Argitalpenak

- AZKUE ARRASTOA, Jokin (1996): Euskararen Erabilera Normalkuntza Prozesuaren Ebaluazioa Euskal Herri Administrazioetan. BAT Aldizkaria, 17. zkia. 1996ko abendua.

- ERKOREKA GERVASIO, Josu I. (1998): El Euskera en la Administración Pública Vasca; origen, situación actual y perspectivas. RIEV, Revista Internacional de Estudios Vascos, 43.2 zkia.
- MARKO, J. I. (2000a): Hizkuntza prozesuen ingeniaritza.. Bat-Soziolinguistika Aldizkaria, 34.
- MARKO, J. I. (2010): Hizkuntza-eraldaketa organizazioetan: Esperientzia eta modelizazioa doktore tesia. EHU.
- MUJIKA, I. e.b. (1997): Kalitatea eta etengabeko hobekuntza. Elhuyar. Usurbil.